OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALAREN ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ETA PATRIMONILAREN ASEGURUA, ONDASUNETAN EMAN LITEZKEEN KALTEEN ASEGURUA ETA EKIPO ELEKTRONIKOEN ASEGURUA

ERANTZUKIZUN ZIBILA/PATRIMONILAREN ASEGURUA

BALDINTZA OROKORRAK

1. Klausula. DEFINIZIOAK

Hona hemen kontratu honetan erabiliko ditugun termino batzuen esanahiak:

- ASEGURATZAILEA: Poliza honen erakunde (aseguru-etxe) jaulkitzailea da, Aseguratzaile gisa, prima kobratuz, kontratu honen xede diren arriskuen estaldura bere gain hartzen du, polizan ezarritako baldintzen arabera. Erakunde hori Espainiako Erresumako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren gainbegiratzepean dago aseguratze jardueran, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren eta Pentsio Funtsen bitartez.
- ASEGURUAREN HARTZAILEA: Kontratu hau aseguru-etxearekin sinatzen duen pertsona. Berari dagozkio kontratutik eratorritako betebeharrak eta eginbideak, Aseguratuari dagozkionak salbu.
- ASEGURATUA: Berari dagozkio kontratutik eratorritako eskubideak.
- ONURADUNA: Aseguratuak izendatu duena, ezbeharra gertatuz gero, polizaren arabera dagokion kalte-ordaina jasotzeko.
- POLIZA: Agiri honetan formalizatzen da aseguruaren kontratua eta osagai hauek ditu: baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria, baldintza teknikoen agiri hau eta kontratu honek dirauen bitartean aseguru honen babesean alderdiek sinatutako aldaketa, eranskin eta gainerako agiriak.
- PRIMA: Aseguruaren prezioa; ordainagirian sartuko dira era berean Aseguruaren Hartzaileari legez ezar dakizkiokeen zerga eta errekarguak, edozelan ere esleipendunak eskainitako prezioan sartuak egongo direnak, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian aurreikusitakoaren arabera.
- KOPURU ASEGURATUA: Agirietan adierazten diren kopurua edo kopuruak, edo, halakorik balego, aseguru-etxeak egindako eskaintza, ezbehar bakoitzari dagokion

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

kalte-ordainaren gehienezko muga adierazten duena, zeinahi delarik ere eragindako estalduren kopurua.

- KALTEAK:
  Gorputzekoak: Pertsona fisikoen lesioak, gaitzak edo heriotza eta baita kalte moralak ere (pertsonari dagokion edozein kalte, min moraletik, kaltetutako edo iraindutako duintasunetik edo ohore-galtzetik eratorritakoa, edo, orokorrean, ondarearegan eraginik ez duen kaltea)

  Materialak: Gauzen kalte, hondatze edo suntsitzea, eta halaber animaliei egindako kaltea.
  Galerak: Erreklamatzaileak izan dituen gorputzeko kalteek edo kalte materialek hari zuzenean ekarri dizkioten galera ekonomikoak.
- EZBEHARRA: Polizak estaltzen dituen eta ondorio ekonomiko kaltegarriak dituen gertaera. Gertaera beretik datozen kalte guztiek ezbehar bakarra osatzen dute.

2. klausula. ASEGURUAREN XEDEA

Polizan adierazten diren baldintza eta mugen barruan, Aseguratzaileak bere gain hartzen du Aseguratua administratiboki –zuzenbidearekin bat– erantzule denean dagozkion kalte-ordainak ordaintzea, sortutako kalte fisiko edo materialengatik eta hirugarrengoei eragindakoen ondorio zuzenak diren galerengatik.

3. klausula. ASEGURUA GAUZATZERAKOAN ETA INDARREAN DAGOEN BITARTEAN

1. Poliza hau oinarritu da Aseguruaren Hartzaileak Aseguratzaileak pasatako galdetegiari emandako erantzunetan eta erantzun horien arabera Aseguratzaileak onartu du arriskua, kontratutik datozen betebeharrak bere gain hartu ditu, eta halaber prima ezarri du.
2. Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak ahal den azkarrena eman beharko dio Aseguratzaileari arriskua areagotzen duen edozein zertzeladaren berri, eta halaber edozein gertaerarena, hark arriskua handitu edo alda badezake, halatan non halakorik aurrez aseguru-etxeak jakitera, ondorio gisa kontratua ez sinatzea edo baldintza garestiagoetan sinatzea ekarriko bazuen.
3. Aseguruaren Hartzailea edo Aseguratua betebehar horretatik libre geratuko da baldin eta Aseguratzaileak galdetegirik pasa ez badio, edota galdetegia eginarazita ere, arriskuaren balioespenean eragin dezaketen zertzeladak badira eta bertan jasoak ez badira.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

4. klausula. ARRISKUA AREAGOTZEN BADA, ASEGURATZAILEAK DITUEN AHALMENAK

1. Baldin eta poliza indarrean den bitartean Aseguratzaileari arriskua areagotu dela jakinarazten bazaio, hark proposa dezake kontratuaren baldintzak aldatzea, jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu horretan, Aseguruaren Hartzaileak hamabost egun ditu, proposamena jasotzen duenetik kontatzen hasita, onartzeko edo gaitzesteko. Gaitzesten badu, edo erantzunik eman ez, Aseguratzaileak, aipatutako epea igarota, kontratua deusezta dezake aurrez Aseguru Hartzaileari jakinarazita, berriro ere beste hamabost egun emanez hari erantzun dezan, eta haiek igarota, hurrengo zortzi egunen buruan behin betiko deuseztapena jakinaraziko dio Aseguru Hartzaileari.
2. Aseguratzaileak, era berean, kontratua deusezta dezake Aseguratuari idatziz jakinarazita, arriskua areagotu zela jakin zuen egunetik kontatzen hasita, hilabetearen buruan.
3. Arriskua areagotu dela jakinarazi gabe ezbeharra gertatuz gero, baldin eta aseguratuak fede txarrez jokatu badu, Aseguratzailea libre gelditzen da prestaziotik. Bestela, Aseguratzaileak prestazioa gutxituko du adostutako primaren eta arriskua jakitera ezarriko zenaren arteko diferentziaren proportzioan.
4. Aseguruak dirauen bitartean arriskua areagotzeak prima gehitzea badakar, eta horregatik deuseztatzen bada kontratua, arriskua areagotu izana Aseguratuari egoztekoa bada, Aseguratzaileak osorik bereganatuko du kobratutako prima. Baldin eta arriskua areagotze hori Aseguratuari egoztekoak ez diren arrazoiengatik gertatu izan balitz, hark eskubidea izango du dirua jasotzeko, urtea amaitzeko falta den zatiagatik ordaindu den primaren kopuruaren arabera.

5. klausula. ADIERAZPENEN ZEHAZTASUN-EZAREN EDO ISILTASUNAREN ONDORIOAK

1. Aseguratzaileak kontratua deusezta dezake Aseguru Hartzaileari zuzendutako adierazpenaren bitartez, hilabeteko epean, Aseguru Hartzailearen isiltasunaren edo zehaztasun-ezaren berri izandako egunetik kontatzen hasita. Aseguratzaileak aipatutako adierazpena egiten duen une beretik, haren esku gelditu dira indarrean den aldiari dagozkion primak, dolo edo erru larria ez badago beraren aldetik.
2. Ezbeharra Aseguratzaileak honen aurreko puntuan aipatutako adierazpena egin aurretik gertatuko balitz, prestazioa gutxituko da polizan adostutako primaren eta benetako arriskuari dagokionaren artean dagoen proportzio berean. Isiltasuna edo zehaztasun-eza Aseguru Hartzailearen dolo edo erru larriz gertatu izan balitz, Aseguratzaileak ez luke prestazioa ordaindu beharrik izango.

6. klausula. ARRISKUA GUTXITUKO BALITZ

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

1. Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak, kontratuaren buruan aditzera eman ahal izango dizkio Aseguratzaileari arriskua gutxitzen duten eta beren izaeragatik haiek kontratua gauzatu aurretik jakitera, hura Aseguru Hartzailearentzako baldintza hobeak sinatzera eramango zuketen zertzelada guztiak.
2. Hala gertatzera, primak estaltzen duen aldia amaitzean, Aseguratzaileak apaldu egin beharko du etorkizuneko primaren zenbatekoa proportzio berean, eta Aseguru Hartzaileak, hala egin ezean, eskubidea izango du kontratua deuseztatzeko eta ordaindu duen primaren eta legokiokeenaren arteko aldea jasotzeko, arriskua gutxitu dela jakinarazi den unetik kontatzen hasita.

7. klausula. EZBEHARRA JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

1. Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzaileari jakinarazi beharko dio ezbeharra gertatu dela, jakiten duenetik zazpi eguneko gehieneko epean. Betebehar hori bete ezean, Aseguratzaileak eskatzea izango du ez adierazteak edo beranduago adierazteak eragin dituen kalte-galeren ordaina.
2. Aseguratzaile bat baino gehiago badira, jakinarazpena Aseguratzaile bakoitzari egin beharko zaio, bide batez gainerakoen izena ere aditzera emanik.

8. klausula. SENDAGILEAREN TXOSTENA

Erreklamatzaileak kalte pertsonalak izan dituela adierazten duenean, Aseguratuak (10. klausulan xedatzen denez, aseguru-etxeari nahitaez eman behar dion entzuteko aukeraren aurretik) espedientean dagoen mediku-dokumentazioa eman ahal izango dio aseguru-etxeari eta mediku-iritzia eskatu ere, edo hala badagokio, erreklamatzaileari osasun azterketa egitea ere eska dezake. Ondorioak biltzen dituen txosten labur bat egingo da eta Aseguratuari bidaliko zaio hiru asteko gehieneko epean, formalki eskatzen denetik kontatzen hasita.

9. klausula. INFORMATZEKO EGINBEHARRA

Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak, gainera, Aseguratzaileari argibide mota guztiak eman beharko dizkio ezbeharraren zertzelada eta ondorioei buruz. Informatzeko eginbide hori betetzen ez badu Aseguratuak, kalte-ordaina gal dezake baina soilik doloz jokatu badu edo erru larria badu.

10. klausula. KOLABORATZEKO EGINBEHARRA ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

1. Aseguru Hartzailea eta Aseguratua elkarlanean ariko dira ezbeharra behar bezala bideratzeko, eta lehenbailehen aseguru-etxea jakinean jarriko dute,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

ezbeharrarekin zerikusia duen zernahi jakiten dutenean, dela epaitegiko jakinarazpena dela epaiz kanpokoa edo administraziokoa.

2. Aseguratua behartua dago behar bezala izapidetzera eta ebaztera berari zuzentzen zaizkion ondare erantzukizuneko erreklamazio guztiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 91 artikuluaren arabera, Ondare Erantzukizuneko gaietan - ezarritakoarekin bat etorriz.

   Aseguratuak, beraz, frankizia gainditzen duen erreklamazioetan entzuteko aukera eman behar dio aseguru-etxeari, ebazpena eman aurretik, eta beraren esku utzi behar du espediente osoa. Izapidetzeko garaian komenigarri izan daitekeen informazio trukea eragotzi gabe.

3. Aseguru-etxea bestalde, behartua dago Udalak ematen dituen ebazpen guztiak betearaztera, haiek eskudun epaitegian aurkaratzeko aukera galdu gabe.

4. Erreklamatzaileak kalte pertsonalak izan dituela kontatzen badu, eta Udalak eta aseguru-etxeak udal erantzukizuna egon dela irizten badiote, Udalak eska diezaioke aseguru-etxeari mediku txosten bat egin dezan kalteak balioesteko.

5. Bi aldeak, aseguru-etxeak eta Aseguratuak, epaiketaz kanpoko ebazpenak bion adostasunez egiteko konpromisoa hartzen dute, bai formari dagokionez, bai kopuruari dagokionez, eta ez batak ez besteak ezingo dute erreklamatzaileekin negoziatu beste aldea jakinaren gainean egon gabe eta haren onarpenik gabe.

11. klausula. ASEGURATUAREN DEFENTSA

1. Polizak estaltzen duen ezbeharretik eratortzen den zeinahi prozedura judizialetan, Aseguratua agertuko da eta berak izendatutako letraduen bitartez defendatua izango da, edo aseguru etxeak izendatutako Abokatuen bitartez, betiere, Aseguratuak izendatutako Prokuradorearen bitartez ordezkatua izango delarik. Gastu guztiak aseguru etxearen kontura izango dira.

2. Aseguru-etxeak berriz, beraren defendatzaileak eta ordezkariak izendatuko ditu.

3. Aseguratuari auzi penaletan defentsa eta ordezkaritza eskaintzea Aseguratzailearentzat borondatezkoa da, eta egiten badu, betiere defendatuaren oniritziarekin egin behar du.

4. Prozedura judizialaren emaitza edo epaitza zeinahi dela ere, Aseguratzaileak badu aukera epaiarekin ados gelditzeko edota emaitza edo epaitza horren aurka egoki deritzen lege errekurtsoak jartzeko.

12. klausula. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK GAUZATZEAN SORTUTAKO KALTEEI BURUZKO ZIGOR EPAIAK

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Herritarrari eragindako kaltea Aseguratua ordaintzera zigortzen duten epaien oinarrian egon litezke administrazio kontratu bat gauzatzerakoan eragindako kalteak (eroriko bat obretan, zerbitzu bat eskaintzean sortutako kalteak, etab.).

Eskarmentuak erakusten digu komeni dela zehaztea zein betebehar dituzten Aseguratuak eta Aseguratzaileak epai horien betearazte fasean, batetik, kalte-ordainen ordainketan atzerapenak saihesteko, eta bestetik, bermatzeko halaber, esku hartzen duen kontratak erantzukizuna bere gain hartzen duela azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legearen 196. eta 311.2. artikuluetan xedatzen duen bezala.

Horretarako, Aseguru-etxeak ordaindu behar dio Aseguratuari dagokion kalte-ordain zatia, epaia jakinarazi denetik ahalik eta azkarren, edota Aseguratuak hala eskatzen dionetik lehenbailehen, hartara ordaindu bitartean sor ez daitezen kalte-ordain jasotzailearen aldeko korrituak.

Aseguratuak, berriz, honako egintza hauek egin behar ditu:

- Ebazpen bat eman behar du non erabakitzen den epaia beteko dela eta herritarrari kalte-ordain osoa ordainduko zaiola (frankizia eta aseguru-etxetik jasotako zatia).

- Zehaztu behar da, aipatutako ebazpenean, egintzen arduraduna ea kontrata den.

- Hala balitz, Aseguratuak kontratari erreklamatuko dio. Beraz, kontratari kobratuko dio herritarrari ordaindutako kopuru osoa, beharrezkoa bada premiamendu prozedura erabiliz .

- Aseguratuak kobratzen duenean, Aseguru-etxeari ordainduko dio dagokion zatia, gehiago atzeratu gabe.

- Aseguratuak, egintzekiko erantzukizuna kontratari dagokiola iritzitakoan, kontratari eskatuko ez balio behar bezala eta behar den epean, Aseguru-etxearekiko zordun solidario bihurtuko da, hark aurreratutako kopuruari dagokionez.

13. klausula.

1. Kontratu honetatik eratortzen diren egintzak bi urteren buruan preskribatuko dira, haiek gauza litezkeen datatik kontatzen hasita.
2. Kontratu hau Espainiako estatuaren jurisdikzioaren pean gelditzen da, eta haren barruan, kontratu honetatik eratortzen diren egintzak ebazteko epaile eskuduna Aseguratuaren helbideari dagokiona izango da (OIARTZUN, Gipuzkoa).
3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe, eta finantza-zerbitzuen erabiltzaileak babesteko arautegiaren arabera, (uztailaren 14ko 20/2015 Legea, Aseguru-etxe eta berraseguru-etxe entitateen zuzendaritza, ikuskaritza eta kaudimena arautzen duena eta urriaren 8ko 50/1980 Aseguruen Kontratu Legea), baldin eta eztabaida sortzen bada aseguru-kontratu honen interpretazioan edo gauzatzean, Aseguruaren Hartzaileak, Aseguratuak, onuradunek eta hirugarrengo kaltetuek edo haien eskubidedunek erreklamazioa jar dezakete

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

aseguru-etxearen Erreklamazio Zuzendaritzan, gutun bidez edo posta elektronikoz.

Era berean Aseguru-etxearen bezeroek edo haien eskubidedunek kexak edo erreklamazioak egin ditzakete, aseguru-agente eta aseguru-bankuetako operadoreen jokaerari dagokionez.

Erreklamazioa paper euskarrian egin liteke edo bitarteko informatiko, elektroniko edo telematiko bidez, Sinadura Elektronikoko abenduaren 19ko 59/2003 Legean aurreikusitakoaren bitartez.

Erreklamazioa ezetsi denean edo erreklamazioa aurkeztu denetik bi hilabete igaro direnean, hark erreklamazioa aurkez dezake Finantza Zerbitzuetako Bezeroaren Defentsarako Mandatariaren aurrean, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorraren Erreklamazio Zerbitzuak bereganatuak dituen eginkizunak.(Paseo de la Castellana, 44, 28046, Madrid; correo electrónico: reclamaciones.seguros@meh.es, Oficina virtual: www.dgsfp.es).

14. klausula. JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA

1. Aseguru Hartzailearen, Aseguratuaren edo onuradunaren jakinarazpenak baliozkoak izateko idatziz helarazi behar zaizkio Aseguru-etxeari; halere, Aseguru bitartekariari egindakoek eragin berberak izango dituzte, bestela adostu ez bada.
2. Aseguru-etxeak Aseguruaren Hartzaileari egindako jakinarazpenak baliozkotzat joko dira haiek ezagutzen duten azken helbidera helarazten badituzte; Aseguru Hartzailearenak Aseguru-etxearen egoitza sozialera bidali behar dira edota polizaren kudeaketan esku hartu duen Aseguru-etxearen bulegora.
3. Aseguru bitartekariak Hartzailearen izenean Aseguru-etxeari egindako jakinarazpenek hartzaileak egindakoek duten eragin bera izango dute, hartzaileak bestelakorik adierazi ezean. Nolanahi ere, Aseguru Hartzailearen berariazko adostasuna beharko da indarreko aseguruaren kontratua aldatu edo deuseztatzeko.

* * *

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

OIARTZUNGO
UDALA

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Poliza honen baldintza partikularrak ondoren zehaztuko direnak dira, horiek gutxieneko estalduratzat hartuko dira, klausula hauetan espresuki kanporatzen ez den kontratuz kanpoko erantzukizun zibil guztia barnesartua dagoelarik.

ASEGURUAREN HARTZAILEA: OIARTZUNGO Udala
IFK P-2006800-C
Helbidea: Done Eztebe plaza 1
20180 - OIARTZUN- Gipuzkoa

I. ARRISKUAREN DATUAK:

Arriskua: Bakarra.

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA:

UDALA

II. ASEGURATUTAKO KOPURUAK ETA ESTALDURAK (zifrak eurotan adieraziak).

EZBEHAR BAKOITZEKO GEHIENEZKO KALTE-ORDAINA: 3.000.000 (HIRU MILIOI).

Aseguratzaileak polizak estaltzen duen ezbehar bakoitzeko gehienez ordaindu behar duen kopurua, berdin da zenbat estaldurari eragiten dion, eta berdin da biktimak edo kaltetuak zenbat diren.

URTE EDO EPEALDI BAKOITZEKO MUGA: 9.000.000 (BEDERATZI MILIOI).

URTE BAKOITZEKO MUGA: Aseguruak estaltzen duen epealdi bakoitzeko gehieneko kopurua da, berdin da ezbehar batean edo hainbatetan agortu, eta aseguruaren epealditzat ulerturik eragina duen egunetik hasita epemugaraino, baldintza partikularretan adierazia edo azken prima ordainagirian ezarri den urteko epealdian. Hasieran urtebetetik gorako iraupena ezarri izan balitz, aipaturiko muga hamabi hilabeteko epealdietan aplikatuko da, poliza indarrean sartzen den datatik kontatzen hasita.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Aurreko hori ondoko estalduretan ezar daitezkeen muga eta azpimugak ezartzea eragotzi gabe.

ESTALDURAK - ASEGURATUTAKO KOPURUA/ AZPIMUGAK

1. OINARRIZKO ESTALDURA

Ustiapen estaldurarako biktima bakoitzeko 600.000 (SEIEHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da.

2. E.Z. PATRONALA

Lan istripuengatik erantzukizun zibil patronala estaltzeko biktima bakoitzeko 600.000 (SEIEHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da.

3. E.Z. LOKATIBOA

Errentan edo edozein titulu juridikoarengatik okupatutako ondasun higiezinetan sutea, leherketa edo/eta urak sor lezaken kalteak estaltzeko 500.000 (BOSTEHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da, ezbehar eta aseguru epealdi edo urte bakoitzeko.

4. E.Z. KUTSADURA

Kutsadura estaltzeko ezbehar eta aseguru epealdi edo urte bakoitzeko 1.000.000 (MILIOI BAT) euroko azpimuga ezartzen da.

5. LEHEN MAILAKO ONDARE-KALTEAK

Lehen mailako ondare-kalteak estaltzeko ezbehar eta aseguru epealdi edo urte bakoitzeko 300.000 (HIRUREHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da.

6. E.Z. GURUTZATUTAKOA

Erantzukizun zibil gurutzatuta estaltzeko biktima bakoitzeko 600.000 (SEIEHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

7. PUBLIZITATE E.Z.

Publizitate erantzukizun zibila estaltzeko ezbehar eta aseguru epealdi edo urte bakoitzeko 600.000 (SEIEHUN MILA) euroko azpimuga ezartzen da.

III. FRANKIZIAK

Oro har, ezbehar bakoitzeko 750 euroko frankizia ezartzen da.

IV. AURREKONTUA

Udalaren diru-sarrera arrunten aurrekontua, 2022-01-01era 18.554.277,00 eurokoa da.

V. GAURKOTZE-KLAUSULA

Urteko aseguruaren kopurua urteko aurrekontuan oinarrituz kalkulatuko da.

Aseguratuak Aseguru-etxeari ekitaldiaren likidazioan onartutako obligazioen berri ematera behartzen da, Aseguru-etxeak dagokion neurrian gehituz edo gutxituz eguneratuko duelarik, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agirian zahaztutakoari jarraiki. gutxieneko primarik ez da egongo.

* * *

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

BALDINTZA PARTIKULAR GEHIGARRIAK

ATARIKOA

Kontratu hau Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legean eta baldintza agirietan xedatutakoen bitartez arautzen da, eta Aseguratuak berak idatziz onartu ez baditu, ez dute baliorik izango Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulek.

Deusezak eta baliorik eta ondoriorik gabekoak ulertuko dira, erakunde esleipendunaren polizaren baldintza orokor edo partikularretan sartuak dauden eta Agiri honen eta baita Baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiriaren kontrakoak edo eurekin kontraesankorrak diren estipulazio eta klausula guztiak.

Poliza honen baldintza partikularrak ondoren zehaztuko direnak dira, horiek gutxieneko estalduratzat hartuko dira, klausula hauetan espresuki kanporatzen ez den kontratuz kanpoko erantzukizun zibil guztia barne sartua dagoelarik.

DEFINIZIOAK

ASEGURATUA: Arriskupean jarritako interesaren titularra; berari dagozkio, hala dagokionean, kontratutik eratortzen diren eskubideak. Aseguratuak Aseguru Hartzailearen eginbeharrak eta betebeharrak har ditzake bere gain. Aseguratutzat, zehazki, honako hauek hartuko dira:

- Udala, haren ordezkariak, zuzendariak, udalbatzako kideak, funtzionarioak, enplegatuak, eta oro har administrazioaren zerbitzupean aritzen diren langileak, beren eginkizunak betetzen dihardutenean. Gorago aipatutako erakundeen zerbitzura dagoen langile orok Aseguratu izaera izango du, zeinahi dela ere haien lan edo administrazio harremana (plazadun funtzionarioa, bitartekoa, kontratatua, ETT bateko enplegatua, bekaduna edo antzekoa), betiere aipatutako erakundeek ordaintzen badiete. Era berean praktikak egiten edo prestakuntza hartzen ari direnak ere sartzen dira.
- Udala, gauzatzen edo/eta administratzen duen instalazioen, terrenoen eta bideen erabilera titulua edozein dela ere, jabe, errentari edo gozamendun gisa, zerbitzu-emaile gisa eta orokorrean ekitaldien antolatzaile gisa, hala nola festak eta abar.
- Udalak antolatutako Jaietako Batzordeetako kideak, jaiak antolatzen edo ekitaldietan ari direla, eta era berean udalak babestutako eta sustatutako kultur, jolas edo laguntza jardueretan laguntzen, kolaboratzen edo zuzentzen duten irakasleak, begiraleak, boluntarioak eta gainerakoak.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Auzolanean diharduten bolondresak, eta baita babes zibileko langileak eta gainontzeko bolondresak ere.
- Hartzailearen zerbitzupean dauden Erakunde Autonomo eta Udal Enpresak eta bere zerbitzuko langileak.

HIRUGARRENA: Hirugarrengo izango dira estaldura honi dagokionez:

- Aseguratuak, Hartzailearen zerbitzuen erabiltzaile gisa.
- Aseguratuak, erantzukizun zibil patronalaren edo lan istripuenaren estaldurari dagokionez.
- Sartzeko hautaketa frogetan parte hartzen duten hautagiak.
- Aseguruaren Hartzailea edo/eta Aseguratua ez den edozein pertsona fisiko edo juridikoa, Aseguratuen eta menpekoen langilegoaren jardueren ondorioz, agiri honetan jasotzen diren aipamenak kanpo.

KALTEAK: Poliza honek bakarrik honako kalte hauengatik emango du ordaina:

- Gorputzekoak: Pertsona fisikoek izandako lesioak, gaitzak edo heriotza, eta baita kalte moralak ere (pertsonari dagokion edozein kalte eta min moraletik, kaltetutako edo iraindutako duintasunetik eratorritakoa, ohore-galtzea edo, orokorrean ondarearengan eraginik ez duen kaltea).
- Materialak: Gauza bat kaltetu, hondatu edo suntsitzea, eta halaber abereei egindako kalteak.
- Galerak: Erreklamatzaileak izan duen galera ekonomikoa, hura polizak estaltzen dituen gorputzeko kalteen edo galera materialen ondorio zuzena denean.

EZBEHARRA: Aseguratua legez erantzule izan daitekeen egitate oro, betiere aseguru-kontratu honen xede denean, eta adostutako baldintzen arabera polizaren bermeak abian jartzen dituenean.

EZBEHAR UNITATEA: Jatorri edo kausa beretik eratortzen diren egitate eta zertzeladen segida ezbehar bakartzat hartuko da, kaltetuen eta erreklamazioen kopurua zeinahi delarik ere. Ezbeharraren datatzat hartuko da kalteak sortu dituen egitatea gertatu den eguna.

EZBEHAR BAKOITZEKO GEHIENEKO KALTE-ORDAINA: Aseguratzaileak polizak estaltzen duen ezbehar bakoitzeko gehienez ordaindu behar duen diru kopurua, berdin da zenbat estaldurari eragiten dion, eta berdin da biktimak edo kaltetuak zenbat diren.

AZPIMUGAK: Baldintza partikularretan adierazten diren kopuruak dira, Aseguratzaileak bere gain hartzen dituen gehieneko mugak, aipatutako baldintzetan zehazten diren berme bakoitzeko. Horretarako biktima bakoitzeko azpimugatzat joko da

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

lesio, gaitz edo heriotzagatik eragindako pertsona fisiko bakoitzarengatik polizak kalte-ordainetan eman behar duen gehienezko kopurua; horrek ez du eragozten baldintza partikularretan aseguraturiko kopurutzat ezbehar bakoitzeko zehaztu den gehieneko muga.

URTEKO MUGA: Aseguruak estaltzen duen epealdi bakoitzeko gehieneko kopurua da, berdin da ezbehar batean edo hainbatetan agortu, eta aseguruaren epealditzat ulerturik eragina duen egunetik hasita epemugaraino, baldintza partikularretan adierazia edo azken prima ordainagirian ezarri den urtealdian.

FRANKIZIA: Poliza honen baldintza partikularretan ezarritako kopurua edo hura kentzeko prozedura, Aseguratzaileak bere gain hartuko ez duena, zuzenean Aseguratuak hartuko duelako edo beste aseguru batek.
Beraz, Aseguratzaileak ezbeharretatik kalte-ordain gisa ordainduko duena izango da bakarrik frankiziatik aseguratutako gehieneko kopuruaren mugaraino dagoen diru tartea.

ERREKLAMAZIOA: Auzi-bideko errekerimendua da edo auzi-bidetik kanpokoa, zuzenbidearekin bat etorrita, Aseguratuaren aurka egiten dena, polizak babestutako kaltezko egitate baten ustezko erantzule gisa, edota Aseguratzailearen aurka, aipatutako arrazoiagatik, ekintza zuzena gauzatzean. Halaber, Aseguratuak Aseguratzaileari egiten dion zeinahi egitate edo zertzeladaren jakinarazpena, zeinen ondorioz erantzukizunak erator daitezkeen.

ASEGURU KONTRATUAREN XEDEA

Aseguruaren kontratuak bermatuko ditu erantzukizun zibila/patrimonialetik eratortzen diren ondorio ekonomikoak, egungo arautegiaren arabera, aseguru hau indarrean den bitartean Aseguratuari zuzenean, subsidiarioki edo solidarioki toka dakiokeena, hirugarrengoei nahi izan gabe ondasun eta eskubideetan eragindako kalte fisiko, material edo ondoriozkoengatik, zuzenbide publikoko pertsona juridiko gisa, udalerriko administrazioan dituen eskumenak eta instalazioak eta udal jabetzak erabiltzeagatik, eta haren mendeko erakundeenak halaber, baldin eta haiek polizan Aseguratu gisa ageri badira.

Konkretuki, kontratuak Oiartzungo Udala bermatzen du Aseguru Hartzaile eta Aseguratu gisa: Erantzukizun Zibil Orokor/Patrimoniala, Patronala, Profesionala, Lokatiboa, Ustekabeko Kutsadura, Lehen Mailako Ondare Kalteengatik Erantzukizun Zibila, Erantzukizun Zibil Gurutzatua, Publizitate Erantzukizun Zibila eta egindako lanen Erantzukizun Zibila, agiri honetan zehazten diren baldintzen arabera.

ASEGURUAREN NORAINOKOA

A) ERANTZUKIZUN ZIBIL OROKORRA / PATRIMONIALA:

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Izango da Aseguratuari egotz dakiokeena zerbitzuen titular gisa, araubide orokorrean, zuzenean, solidarioki edo subsidiarioki edota administrazioaren ondare erantzukizunaren bidetik, hirugarrengoek ondasun eta eskubideetan izan dezaketen zeinahi lesio fisiko, material edo ondoriozkorengatik, ezinbesteko kasuak salbu, betiere lesioa udal zerbitzuen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorio denean.

Honako hauek hartzen ditu:

- Aseguratuari egotz dakiokeen erantzukizun zibila, gobernu organoen edo funtzionario, agente, soldatapeko langileen eta bolondresen egintzek hirugarrengoei eragindako kalte material eta/edo gorputzekoengatik, betiere haiek beren eginkizunetan zihardutela eginak badira.
- Aseguratuari egotz dakiokeen Erantzukizun Zibila, hirugarrengoei beren ondasun edo eskubideetan eragindako lesioengatik, bere jabetzako eraikinak eta instalazioak, ur depositoak, eroanbideak eta bere ondareari dagozkion beste eraikin batzuk, zeinahi titulu juridikorengatik haien jabe izaki, ustiatu eta erabiltzearen ondorioz eragindakoak direnean.
- Aseguratuari egotz dakiokeen Erantzukizun Zibila, hirugarrengoei beren ondasun edo eskubideetan eragindako lesioengatik, zerbitzu publiko bat ematean izandako ohiko edo ezohiko funtzionamenduak eragindakoak direnean, betiere zerbitzu horren kudeaketaren eskumena udalarena denean.
- Aseguratuari egotz dakiokeen Erantzukizun Zibila, ikastetxe, zahar egoitza, ospitale, kiroldegi eta gisakoetan dauden ondasun higiezin eta/edo higigarrien errentari, gozamendun eta/edo erabiltzaile gisa.
- Aseguratuari egotz dakiokeen Erantzukizun Zibila, bere jabetzan dauden beste Erakunde Publikoen ondasunen gain eskumena duen “in vigilando” betebeharretik eratorritakoa.

Honako kasu hauen ondorioz, baina ez hauetara mugaturik, pertsona fisiko edo juridikoari ondasun edo eskubideetan egindako lesioengatik udalari egotz dakiokeen ondare erantzukizuna eta zibila estalita gelditzen da:

- Bere zehinahi agente eta funtzionarioen, organoen eta zerbitzuen egintza administratiboak.
- Emandako zerbitzu publikoen jarduketa materialak.
- Udalak zeinahi titulu juridikopean bere jarduera egiteko erabiltzen dituen instalazio eta bitarteko materialen mantentze eta kontserbazio egoera (higigarriak eta higiezinak).
- Ondasun higigarri eta higiezinen jabe, gozamendun edo errentari izatetik eratortzen diren erantzukizunak eta halaber errentamendu edo edozein titulu juridikopean okupatzen dituen ondasun higiezinen jabeekiko ondare erantzukizun zibila.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Obra berriko eta egun dauden eraikin edo/eta instalazioen mantentze, konponketa, handitze edo eraberritze lanen eraikitzaile edo/eta sustatzaile.
- Era guztietako jardueren antolakuntza zuzena edo/eta Bizilagun Elkarteekin edo beste tokiko elkarteekin elkarlanean (gizarte, kirol, kultur eta jai ekitaldiak, etab.).
- Sute, leherketa, ke, gas, usain, ur, lurrun, luizi edo lur-jausteak, eta abar.
- Edozein motatako sustapen kanpainak antolatzearen ondorioz (nekazal, abeltzaintza, kirol, kultur, gizarte, e.a...)
- Basoko sute edo beste edozein sute sortzea eta zabaltzea, estaliak geratzen direlarik kalte material, gorputzekoak edo/eta mobilizatutako pertsonen gain gertatutako ondorioetakoak.
- Basoberritze, landatze, mozketa lanak, beti ere udal brigadako langileek edo Aseguratuak kontratatutako langileek egin badituzte, eta baita pertsona bolondresak ere.
- Animaliak edukitzea.
- Aseguratuari egotz dakiokeen erantzukizuna, ur hornidurarako tankeekin edo/eta biltegiratzearekin edo/eta depositoekin zerikusirik duten erreklamazioengatik
- Aseguratuari egotz dakiokeen erantzukizuna ur eta estolda zerbitzuen hargune eta banakuntza orokorrerako diren instalazioetan sortutako kalteengatik, kalte haiek instalazioen matxura, haustura edo erorikoagatik gertatu direnean. Ildo horretan, hargune instalaziotzat hartzen dira banabide nagusitik ateratzen diren adarrak, eraikin bakoitzaren sarreran dagoen ixteko giltza komunera heltzen direnak.
- Hornidura sistema eta ur banaketaren sarearen hutsuneengatik. Banaketa sarean sartzen dira: zerbitzuko edo/eta banaketako depositoetatik etxeko ur-hartuneetara edo/eta ur-hartune publikoetara ura eraman eta banatzen duten hodiak, osagarriak eta egituren multzoa; erabiltzaileei ura emateko helburuarekin, bai etxean kotsumitzeko, baita kontsumo publiko, komertzial edo industrialerako, edo ez-ohiko egoeretarako, hala nola suteak itzaltzeko.

  Ur banaketarako sarearen osagarri nagusiak honakoak dira:

  - Hodiak eta berauek muntatzeko edo lotzeko sistemak
  - Pieza Bereziak: Adarkadurak, elkarguneak, norabide aldaketak, diametro aldaketak, material eta/edo diametro ezberdineko hodien loturak eta konduktuen amaierak, besteak beste, egiteko erabiltzen dituzten osagarriak.
  - Balbulak: hodietan uraren isuria gutxitzeko edo ekiditeko erabiltzen diren osagarriak. Bi motatakoak bereiz daitezke:
    - Isolamendu edo/eta Zatitzeko Balbulak: banaketako gainerako sistemaren isuria bereizi edo moztu egiten dute hodieriako zenbait zatitan, ponpetan edo kontrol tresnetan.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Kontrolerako balbulak: Gastua edo/eta presioa erregulatzen dute, airearen sarrera errazten dute edo sedimentuak edo sarean geratutako airea irtetzea bideratzen dute.

▪ Ur-hartune Publikoak edo/eta Suteen aurkakoak: Puntu jakin batzuetan jarritako hartune edo lotune bereziak kontsumo publikorako eta/edo suteen aurka erabiltzeko.

▪ Banaketa edo/eta Erregulazio Depositua.

▪ Etxeko hartuneak: banaketa sarearen hoditik erabiltzailearen onibarreraino hornidura ahalbideratzen duen pieza eta hodien multzoa.

▪ Birponpaketak: uraren zirkulazioa mantentzeko, orokorrean eroanbide bateko tarteko puntuetan kokatzen diren ponpaketa instalazioak

▪ Presioa puskatzeko kutxak: Egitura honetan banaketako iturri ezberdinetatik datorren ura gordinik jasotzen da; bere helburua eroanbideetan dagoen presioa gutxitzea da eta gainontzeko unitateetara egon daiteken sestra diferentziengatik isuri uniforme bat lortzea.

- Edozein instalazioan gas, kloroa eta abarren ihesiagatik.
- Udalak berak edo hark kontratatutakoek egindako ondorengo lanen egikaritzeaz:

  - Aseguratuaren eskumeneko espaloi, bide, errepide, arboladi, lorategi parkeen eta abarren mantentze eta kontserbatze lanak.
  - Aseguratuaren eskumeneko ur banaketa, hornidura eta saneamendu sarearen, estolderia, argiteri publikoa eta abarren mantentze eta kontserbatze lanak.
  - Udalaren edo Tokiko Administrazio eta Erakunde Autonomoen mendean diren instalazio eta eraikinen mantentze-lana.
  - Aseguratuaren eskumeneko eroanbide, hoditeri eta abarren konpontze eta mantentze lana.
  - Udalari atxikitako langileek egindako instalazio eta eraikinen eraikuntza eta eraberritzea.
  - Zaintza eta segurtasuneko zerbitzua eta su armen edo/eta defentsako beste mota baten erabilera.
  - Aseguratuaren gain subsidiarioki egokitu daiteken Erantzukizun Zibila/Patrimoniala, enplegatuen jabetzakoak, alokairuzkoak edo hirugarrengoenak izan eta zerbitzu eginkizunetarako Udalaren eskura jarritako motordun ibilgailuen erabileraren ondorioz hirugarrengoen gain sortutako kalteengatik.

    Motordun ibilgailuen erabilera eta zirkulazioaren gain Baldintza Berezi hauetako “KANPO GERATZEN DIRENAK” atalean ezarritakoa zati batean baliogabetuz, motordun ibilgailuen erabilera eta zirkulazioari dagokion derrigorrezko aseguruaren eta baita arrisku zehatz hau

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

estaltzeko egon daiteken zeinhai aseguru baliogarri eta kobragarriaren kopurua gainditzen duenean funtzionatuko du estaldura honek.

Puntu honetan aurreikusten den kalte-ordaina honako puntu hauen arabera arautuko da:

a) Ezbeharra gertatzen den momentuan, aipatutako enplegatuak edo hirugarrengoak aseguratuak agindutako lan edo zereginetan ari direnean, aseguruaren xede den jardueraren esparruan.

b) Enplegatu edo hirugarrengo horiek zuzenean erantzule jotzen direnean.

c) Istripua eragin duten ibilgailuek ez dituztenean sinatuak berme aski autoaren poliza berariazkoen bidez, ezustean gertatutako kalteak ordaintzeko.

d) Aipatutako poliza ez askitzat deklaratzen bada, eta Aseguratuari kalteak ordaintzeko erantzukizun zibila egozten bazaio.

- Motordun ibilgailuen derrigorrezko edo/eta borondatezko aseguruaren xede izan ezin duten makinaria autopropulsatuaren erabilera.
- Salgaien eta ondasunen garraioa lurretik egiten denean, zamalanak barne. Aseguratuaren Erantzukizun Zibil Subsidiarioa barne hartzen du, Garraio Enpresak kontratatzeko, jabetzan, errentan edo gordailupean dituen ondasunak garraiatzeko, eta baita aipatu ondasunak garraioan dauden bitartean sor lezaketen kalteengatik ere.
- Trafikoko seinaleak eta semaforoak jabetzan izateagatik, argiteri publikoko instalazio eta zerbitzuak, estolderia, mantentze lanak, garbiketa eta zabor bilketa barne.
- Udal zerbitzu ezberdinek antolatzen dituzten udaleku, jarduera eta antzeko kanpainak.
- Jendaurreko jai-ekitaldien antolatzaile zuzen gisa edo Bizilagun Elkarteekin edo beste tokiko elkarteekin elkarlanean: hala nola dantzaldiak, berbenak, zezenketak (entzierroak, bigantxak, kapeak, sokamuturrak edo antzekoak) karrozen desfileak, animalien bidezko kirol ekintzak eta erakusketak, lore-joko lehiaketak eta kultur ekitaldiak oro har. Kultur ekitaldien barnean hartuko da era berean aisialdi eta denbora libreko jardueren antolakuntza (Espainiako estatuko zeinahi tokitan egiten diren kirol probak, lasterketak, haurrentzako udalekuak eta adinekoentzako oporraldiak).
- Suziriak eta petardo-sokaketa jaurtiaz, zezen suzkoak eta su artifizialak jaurtiaz egiten diren jaien antolakuntza zuzena edo Bizilagun Elkarteekin edo beste tokiko elkarteekin elkarlanean. Su artifizialei dagokionez, euren jaurtiketaz arduratzen den Enpresak kontratatua duen bermearen osagarri izango da poliza hau.
- Udalak kontratatutako kontratista edo azpikontratistak, Udalaren kontura egiten dituzten lanak. Kasu honetan Udalari, solidiarioki eta subsidiarikoki dakiokeen Erantzukizun Zibila estalia geratuko da, aipatu lanei dagokionez.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Udaltzaingoaren jarduera, eta su armen edo/eta defentsako beste mota baten erabilera barne hartzen du.
- Komunitatearen alde lan egiten duten babes zibileko, kontzientzia-eragozleek eta gainontzeko bolondres eta/edo akreditatutako pertsonalak egiten dituzten jarduerak bermatua geratzen dira. Aipatu jarduketa udalerrian bertan egin ahal izango da edo asignatu zaion eskualdean, eta Agintari Eskudunak (tokikoa, estatukoa, erkidegokoa eta besteak) agindutako zerbitzuetan.
- Komunitatearen onuran egindako jardueretan bolondresak parte hartzea (Auzolanak) Udalaren laguntza materialarekin, lan horiek Aseguratuak zuzenean edo/eta tokiko elkarte eta beste erakundeekin elkarlanean antolatuak direnean. Azalpen gisa eta izaera murritzailerik gabe: uztondoak garbitzea, ibaiak txukuntzea, bideak egokitzea, eta abar.
- Alkateak, udalbatzako kideek eta udal langileek beren zereginetan egiten dituzten bidaiak.
- Estalita gelditzen da Aseguratuari eska dakiokeen Erantzukizun Zibila Aseguratuaren enplegatuen ondasun materialetan eragindako kalteengatik, ezbehar bakoitzeko 15.000 euroko mugarekin, eta 30.000 euro aseguru-urteko, betiere:
    - Erreklamazioaren xedea ez denean dirua, ez eramailearentzako tituluak, ez harribitxiak ez eta baliozko gauzak, izendapen horrekin ulerturik enplegatuen gauza pertsonalak, haiek unitateko 1.500 eurotik gora balio dutenean.
    - Erreklamazioaren xede dena aseguratuaren instalazioen barruan dagoenean edota kanpoan toki egokian eta aseguratuaren zaintzapean.
    - Kanpo geratzen dira, eta beraz, estaldura honetatik kanpo, eurek beren ondasunei eragindako kalteak, eta halaber, lapurreta, ebasketa edo espoliazioa.

B) ERANTZUKIZUN ZIBIL PATRONALA

Estaldura honen xedea da Aseguraturiko jardueran gertatzen diren lan istripuengatik Aseguratuari exijitzen zaion erantzukizun zibila bermatzea, indarreko arautegiarekin bat, eta polizan ezartzen diren muga eta baldintzen barruan.

Zehazki, estaldura honek honako hauek bermatzen ditu:

- Erantzukizun Zibil Patronala, hau da, bere nominan dauden eta Lan Istripuen Aseguruan alta emanda dauden langileek izaten dituzten lan istripuengatik Aseguratuari exijitzen zaion erantzukizuna, halaber, aldi baterako edo iraupen jakin baterako lan-kontratudunek izaten dituzten lan istripuak, eta, azkenik, lan harremana alde batera, Aseguratuaren mendeko

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Aldi baterako Lan enpresek eta bestelakoek kontratatutako langileen lan istripuak.

- Beste kontratista batzuk, azpikontratista propio edo besteenak eta haien mendeko langileen lan istripuengatik Aseguratuari eskatzen zaion Erantzukizun Zibila.

Lan istripuen erantzukizun zibilaren estaldurarako, poliza honetako Baldintza Partikularretan biktima bakoitzeko azpimuga gisa adierazten den diru-kopurua, gorago aipatu ditugun kasu guztiei izango zaie aplikagarri.

Lan istripuengatik erantzukizun zibil patronal honetatik KANPO GERATZEN DIRA:

- Lan istriputzat jo ez diren egitateen erantzukizunak edota Lan Istripuen Asegurutik kanpo daudenak, eta halaber, Lan Istripuen Nahitaezko Aseguruan alta emanda ez dauden langileen erreklamazioak edota duten araubide bereziaren Nahitaezko Asegurua ez dutenena (autonomoak, etab.)
- Bere lana egiteagatik langileak eduki lezaketen lanbide-gaixotasun edo lanbidekoak ez direnengatiko kalte-ordain eta asistentzia gastuak, eta halaber, miokardio infartua, tronbosia, buruko hemorragia eta antzeko etiologia duten gaixotasunak.
- Era guztietako isun eta zehapenak, eta halaber, indarreko legedian izaera zigortzailearekin ezarritako prestazioen errekarguak.
- Enpresaburuak izaera orokorreko kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik egindako erreklamazioak, haietatik gorputzeko kalterik eratortzen ez denean.
- Kalte materialen ordaina.
- Poliza honen arabera Aseguratutzat hartzen ez diren kontratista eta azpikontratisten erantzukizunak.

C) ERANTZUKIZUN ZIBIL PROFESIONALA

Aseguratzailearen Erantzukizun Zibila bermatua gelditzen da, poliza indarrean dagoen bitartean, beren lanbide jardueran langile tekniko tituludunak edo/eta graduatuak lanbide akats, hutsegite edo ez egiteengatik hirugarrengoei gorputzeko kalteak, materialak edo ondoriozko kalteak sortuz gero, betiere Udalaren enplegatuak direnean eta Udalarentzat eta Udalaren kontura lanean ari direnean.

Halaber aseguru poliza honek estaltzen du Aseguratuaren Erantzukizun Zibila langile tekniko tituludunak edo/eta graduatuak lanbide akats, hutsegite edo ez egiteengatik, poliza indarrean sartu aurretik egin zirenak baina kalte edo lesioa poliza indarrean denekoa denean edo lehendik gertatu denean beti ere ez bada espresuki azaltzen Aseguratuak aipatu lesio edo ezbeharraren berri izan zuenik

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

bere egunean. Nolanahi ere, erreklamazioa poliza indarrean dagoen bitartean egin behar da.

Bereziki, honako jarduera hauetatik datozen erantzukizunak geratuko dira bermatuak:

- Obra eta/edo eraikuntzen muntatze, zabaltze eta/edo eraberritze proiektuen zuzendaritza eta gainbegiratze jarduerak, betiere salbuetsirik gainbegira, proiekta, eraiki, munta, zabal edo eraberritutako lanek berek izandako kalteak.
- Mediku propioak edo haien osasun laguntzaileek lanbide jardueran egindakoak, baldin eta haiek mugatzen badira urgentziazko sendaketa, enpresa medikuen zerbitzu, aseguratzailearen mendeko langileen eta izangaien eta mendeko langile gaien azterketa klinikoetara, eta baita ere beren jarduerarako beharrezko dituzten tresnen erabilera.
- Udalaren mendeko osasun edo gizarte langileen lanbide jarduketa, osasun edo gizarte laguntzako jardueran dihardutenean (adinekoak, ezinduak, toxikomanoak eta antzekoak).
- Udal arkitektoen, aparejadoreen, kontu-hartzaileen, diruzainen eta abokatu/ letratuen lanbide jarduketa, betiere profesional hauek Udalaren enplegatuak direnean, funtzionarioak edo lan-kontratupekoak, eta Udalaren izenean eta berau ordezkatzen dihardutenean.

Erantzukizun Zibil Profesionaleko estaldura hau beste aseguru bat egon ezean, edo egonda ere gainetik edo baldintza ezberdintasuna tarteko denean sartuko da indarrean, sinatutako aseguruekiko, haiek nahitaezkoak izan edo ez.

D) ERANTZUKIZUN ZIBIL LOKATIBOA

Errenta erregimenean, zesioan edo beste zeinahi titulu juridikoarengatik Aseguratuak okupatzen duen ondasun higiezinen jabeen aurrean Aseguratuaren erantzukizun zibila bermatzen da, Udalaren edozein jarduera propioen garapenerako.

Estaldura hau sute, leherketa eta/edo uraren ondorioz gertatutako kalte materialengatik eta ondoriozko galerengatik izango da.

E) USTEKABEKO KUTSADURAGATIKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

Berme honen bitartez uraren, lurzoruaren eta airearen kutsaduragatik sortutako kalteak bermatzen dira, indarrean dagoen legediaren arabera, beti ere hau ustekabekoa, bapatekoa eta Aseguratuarentzat aurreikusi eta espero gabea denean. Kutsadurak izaera ustekabekoa eta bapatekoa duela ulertuko da

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

kutsadura agertzen denean jazoera kutsatzailea gertatzen denetik hurrengo 120 orduen barruan.

F) LEHEN MAILAKO ONDARE-KALTEAK

Hirugarrengoak jasan lezaketen ondare galera edo kaltearen ondorioz kalte-ordainen ordainketa bermatuko dio Aseguru-etxeak Aseguratuari hau erantzule zibila denean, kalte horiek aseguratutako jarduera burutzean egindako lanbide akats edo erruen ondorioz badira eta gertatzen direnean eskubide baten gozamenaren pribazio zuzen eta berehalakoa eragiten dutenean, hau da, gorputzeko kalte, kalte material edo ondoriozkoetara bideratu ezin diren kalteak.

Lehen mailako ondare-kalteen estaldura honetatik KANPO GERATZEN DIRA:

- Aseguratuaren kaudimen-gabeziatik, bere obligazioak betetzeko berandutzagatik edo finantzieroki ahultzeagatik sortutakoak.
- Diru galerak eta baita diruzko-zeinuak eta, orokorrean, baloreak eta eramailearen edo bete gabeko aginduari atxikitako efektuak.
- Kaltetuaren ondare eremuan eragiten ez duten kalte moraletik eratorritako erreklamazioak.
- Sekretu profesionala hausteagatik erreklamazioak.
- Aseguratutako administrazioaren funtzionamendu arruntetik eratorritakoak, galerak zerbitzua emateko baliabide eskasiaren ondorio zuzena direnean.
- Aurrekontuak edo kredituak gainditzearen ondoriozko erreklamazioak; diruzko negozioak, higiezinenak edo beste transakzio komertzialen gomendioak, bai kostu bidezkoa bai kostu gabekoak.
- Oker emandako edo ukatutako baimena edo lizentzien ondoriozko erreklamazioak.
- Kalumnia, irain edo difamazioen delituen egilearen ardura zuzena.

G) GURUTZATUTAKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

Estaldura honek bermatzen du Aseguratuaren erantzukizun zibila ondorengo kasuetan:

- Aseguru honek estaltzen duen jarduerari lotutako lanetan parte hartzen duten azpikontratisten eta beste enpresen enplegatuak sortutako kalte pertsonalak, lan horiek burutzerakoan.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Aseguru honek estaltzen duen jarduerari lotutako lanetan parte hartzen duten Aseguratuaren azpikontratisten artean sortutako kalte pertsonalak, lan horiek burutzerakoan.

Baldintza partikular osagarri hauetan aurreikusitako estaldura guztiekin amankomunean kanpo geratzen direnez gain, ondorengo erantzukizun zibilak kanpo geratzen da:

- Aipatu obrak edo/eta instalazioak burutzean obra edo/eta instalazioari eta ekipo eta erabilitako makinei sortutako kalte materialengatik, halaber aipatu kalteen ondoriozko galerengatik.
- Obran parte hartzen dutenei sortutako kalte materialengatik, halaber aipatu kalteen ondoriozko galerengatik.
- Kontratista eta azpikontratisten erantzukizun zuzena, euren langile propioen aurrean.

H) PUBLIZITATE ERANTZUKIZUN ZIBILA

Informazioak, berriak, aipamenak, argazkiak, iragarkiak edo publizitatea zabaldu edo argitaratzeagatik –egiaztatutako kalte edo galera materialak edo kalte moralak erakarri dituenean– Aseguratuari exijitu daiteken erantzukizun zibila babestea hitzartzen da espresuki estaldura honen bitartez, betiere kalte horiek kaltetuaren ondarearengan eragina dutenean, hau da, banaka eta ekonomikoki baloragarria den galera ekonomikoa eragiten duenean.

Publizitate erantzukizun zibileko estaldura honetatik KANPO GERATZEN DIRA:

- Edozein zehapen penal edo administratiboa, eta hauen ondoriozko kalteak.
- Egile eskubideen urraketagatik konpentsazioa.
- Beste edozein esklusiba eskubide, banaketakoa edo jabetza intelektualaren urraketa.
- Kalumnia, irain edo difamazio delituen egileen ardura zuzena.
- Kalte edo min moral edo espiritualagatik, estimu eta izen ona galtzeagatik kaltetuaren ondarearen gain eraginik gabekoak, hau da, galera ekonomikorik ekartzen ez duten guztiak, esaterako intimitate pertsonalaren, familiarraren, norberaren irudiaren edo beste babes zibileko eskubideen lesioengatik egindako erreklamazioetan oinarritutakoak.

I) EGINDAKO LANEN ERANTZUKIZUN ZIBILA (PRODUKTUENA)

Estaldura honen bitartez, espresuki adierazten da Aseguratuaren erantzukizun zibila babestuko dela, ondorengo kasuak eragindako kalteen ondorioz:

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Produktu edo ondasunek entregatu ondoren.
- Obren harrera egin ondoren bertan burututako lanak.

Estaldura honek babesten dituenen definizioak hauek dira:

- Produktua: Zeinahi ondasun higiezin edo higigarri, eta halaber gaiak, ondasun higiezin edo higigarrien osagaiak edo piezak, Aseguratuak fabrikatu, muntatu, elkarretaratu edo merkaturatutakoak.
- Lana: Aseguratuak edo haren mendekoak zuzenean egindako obra, muntatze edo instalazioak.

Produktuen erantzukizun zibiletik KANPO GERATZEN DIRA:

- Lan edo obrak berek eduki lezaketen kalteak edo akatsak.
- Obra edo lanen ikuskatze, konpontze, eraiste, ordezkatze edo erabilera galeratik eratortzen diren gastuak edo kalte-ordainak, haiek akats ezagun edo ustezkoren ondorio direnean.
- Obra, lan edo zerbitzuek beren xedea betetzeko ezgauza izateak edo iragarritako nolakotasun edo ezaugarriak ez izateak sorrarazten dituen galerak.
- Aplikagarri zaion zuzenbide positiboko zeinahi arau nahita hautsiz egindako lan edo obrek eragindako kalteak, eta onartuak dauden arauen arabera aplikatu beharreko teknikak ongi aplikatu gabe egindako obra, lan eta zerbitzuek eragindako kalteak, eta halaber, Aseguratua kontratista edo azpikontratista bilakatzen denean, hark edo jabeak emandako jarraibideak nahita alboratuta egindako lanek eragindako kalteak.
- Produktuen erabiltzaileei eragindako galerak, produktuek beren xedea betetzeko ezgauza izateak edo iragarritako nolakotasun edo ezaugarriak ez izateak sorraraziak direnean.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

DEFENTSA GASTUAK ETA FIDANTZAK

Baldintza Partikularretan aseguraturiko kopuruaren mugarekin eta betiere erreklamazioaren xedea polizaren estalduretan sartua badago, honako hauek ere bermatuta gelditzen dira:

- Defentsa pertsonala, Abokatu eta Prokuradoreen bitartez, prozedura zibiletan, penaletan eta administrazioarekiko auzien prozeduretan.
- Prozeduraren eraginak bermatzeko exijitzen diren fidantza judizialak jartzea, eta halaber polizak bermatutako ezbehar baten ondoriozko prozedura penal batean behin behineko askatasuna lortzeko fidantza jartzea.

- Epaiketa-kostu guztiak ordaintzea.
- Aseguratuaren aurka segitzen diren epaiketetan epai kondenatzailea gertatzen bada, Aseguratzaileak erabakiko du ea komeni den eskudun Auzitegi Gorenera jotzea; errekurtsoa jartzea desegokitzat jotzen badu, interesdunari jakinaraziko dio, eta hura libre da egokitzat joz gero errekurtsoa bere kontura jartzeko. Azken kasu honetan, jarritako errekurtsoaren epaia Aseguratzailearen interesen aldekoa balitz, eta hark eman beharreko kalte-ordaina gutxituko balu, Aseguratzaileak ordaindu beharko ditu errekurtsoak sortutako gastuak.

Polizak bermatutako gertaera baten ondoriozko edozein prozedura judizialean, Aseguratzaileak –kaltetuaren erreklamazioaren aurrean– defentsa juridikoa bere gain hartuko du eta bere kontura izango dira defentsa gastuak eta sortutako ordezkaritza gastuak. Aseguratuak elkarlanean aritzeko prest azaldu behar du Aseguratuak bere gain hartutako defentsa juridikoan. Aseguratuak izendatuko ditu Prokuradoreak eta, Aseguru-etxeak izendatuko ditu Abokatuak, azken hauek, Aseguratuak idatzitako dokumentuak ulertzeko hizkuntza gaitasun nahikoa eduki beharko dut, izan ere Aseguratuaren lan hizkuntza euskara da.

Aseguratu eta Aseguratzailearen artean gatazka bat gertatuko balitz, Aseguratzaileak Aseguratuaren defentsaren aurkako interesak defendatu behar dituelako, Aseguratuak jakinaraziko dio, betiere urgentziagatik defentsarako beharrezkoak diren izapideak egiteari utzi gabe. Kasu honetan, Aseguratuak erabaki ahal izango du, zuzendaritza juridikoa Aseguratzailearekin mantentzea edo bere defentsa propioa beste pertsona batengan uztea. Hala bada, Aseguratzaileak aipatu zuzendaritza juridikoaren gastuak ordaintzera behartua dago, ezbehar bakoitzeko 10.000 euroko mugarekin.

Lehen aipatutako prestazioak aplikagarriak izango dira ere Aseguratuaren aurkako prozesu penaletan aseguruaren xede den jardueratik eratorriak badira eta aurretik defendatuak baimenduta. Aseguratuak erabaki ahal izango du, zuzendaritza juridikoa Aseguratzailearekin mantentzea edo bere defentsa propioa beste pertsona batengan uztea. Hala bada, Aseguratzaileak aipatu zuzendaritza juridikoaren gastuak ordaintzera behartua dago, ezbehar bakoitzeko 10.000 euroko mugarekin

GASTUAK ORDAINTZETIK LIBRATZEA

Polizak bermatzen duen kopuruari ez zaizkio epaiketa-gastuak edo epaiketaz kanpoko gastuak kenduko, direlako gastu horiek kalte-ordainari erantsita polizak ezbehar bakoitzeko estaltzen duen muga gainditzen badute, betiere Espainiako auzitegietan bideratzen badira egintza horiek.

Estalduraren lurralde esparrua zabaltzea adostu eta egintza atzerriko auzitegietan egiten bada, ez da gastuetatik libratzeko aipatutako klausula aplikatuko, eta haiek ezbehar bakoitzeko bermaturiko kopuruan sartuta egongo dira, eta, nolanahi ere, huraxe izango da Aseguratzaileak bermatu behar duen gehieneko zenbatekoa.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

ESTALDURA GUZTIETAN KANPO GERATZEN DIRENAK

Poliza honek ez ditu honako hauek estaltzen:

- Izaera orokorreko administrazio-egintza arau-emaileak.
- Aseguratuak berak edo bere ardurapean dagoenak fede txarrez edo nahita eragindako kalteak, edota nahita lege arauak urratu edo ez betetzetik letozkeenak.
- Nazioarteko gerra edo gerra zibila, herri matxinada edo altxamendua, terrorismoa, lurrikarak eta uholdeak eta gisako ezohiko gertaeretatik datozen kalteak.
- Era guztietako isun eta zehapenen ordainketa.
- Polizan frankizia gisa jarritakoaren behetik dagoenean ezbeharrari dagokion kalte-ordaina.
- Erreakzio edo irradiazio nuklearra edo nolanahiko erradiazio kutsadura, gai horren gaineko arautegi berezian jasoa egon edo ez.
- Asbesto purua edo asbestoarekin guztiz edo zati baten egindako produktuen erauztea, prozesatzea, fabrikatzea, banatzea edo biltegiratzea. Halaber salbuetsia geratzen da guztiz edo zati batean asbestoz egindako produktuen erabilera.
- Asbestoa edo asbestodun gaiak fabrikatzen, eratzen, eraldatzen, muntatzen, saltzen edo erabiltzeagatik sortutako asbestosia edo beste zeinahi gaitzengatik, minbizia barne, egiten diren erreklamazioak.
- Airean edo uretan nabigatzeko edo euskarri moduan jartzeko den zeinahi aireontzi edo tresnak eragindako kalteak. Halaber aireportu eremuetan Aseguratuaren jardueragatik eta urazpiko eta lurrazpiko meatzetan egindako lanek eragindako edozein kalte.
- Udal teknikariek proiektua egiten, zuzentzen edo egikaritzen esku hartzen duten eraikuntza lanetan eta halaber haiek egikaritzeko erabilitako ondasunetan sortutako kalteen gaineko erreklamazioak.
- Motordun ibilgailuak erabiltzeagatik sortutako kalteen gaineko erantzukizunak, kalte horien gainekoa arautua dagoenean motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibil eta aseguruaren gaineko arautegian.
- Derrigorrezko Aseguru baten estaldurak bermatu beharreko arriskuen ondoriozko kalte eta galerak.
- Kalte ekonomikoengatik jarritako erreklamazioak, haiek polizak babesten ez dituen kalte material edo gorputzekoen ondorio direnean, eta halaber, hauen ondorio direnean.
- Lurraren, uraren edo atmosferaren kutsaduragatik sortutako kalteen gaineko erantzukizun zibila, betiere kalte haiek udalbatzak aurreikus ez dezakeen gertaera bapateko eta ezustekoengatik direnean, eta haien ondorioak ezin direnean saihestu, eta Ingurumen Erantzukizunaren gaineko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta hura

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

garatzeko arautegian oinarrituriko zeinahi erreklamazio Administrazio Publikoak exijitu dezakeena.

- Erantzukizun Zibila urtegiak edo presak haustetik eratorria edota itsas urek, ibai-urek, ubide, portu edo aintzirek gainezka egin edo ura iragazi delako sortutakoa.
- Arriskutsutzat jotako salgaiak metatu eta garraiatzetik eratorritako erantzukizun zibila (lehergaiak, sukoiak, erregaiak, korrosiboak edo toxikoak).
- Portu, aireportu edo/eta aerodromoen eraikitze, mantenu edo/eta ustiaketaren ondoriozko kalteak, eta baita aipatu instalakuntzetan egindako beste edozein jardueren ondoriozkoak. Halaber, instalazio horien zerbitzura dauden ibilgailuen zirkulazio/nabigazioa ere.

  Ondorioz, itsasoz, trenbidez edo airez egiten den garraioa gelditzeagatik kalte eta galerak kanpo geratzen dira.
- Suzirigileek su ikusgarrietan duten erantzukizun zibil zuzena.
- Zezen ikuskizun tradizionaletan aktiboki parte hartzen dutenek izandako kalteengatik jarritako erreklamazioak (entzierroak, abelburu askatzeak, bigantxak, etab.) profesionalak izan edo afizionatuak izan.
- Aseguratuak aginduta eta haren kontura zeinahi industri ustiategi, obra, zerbitzu, irakaslan edo lanbidekoan ari diren pertsona fisiko edo juridikoen Erantzukizun Zibil zuzena, hala nola instalazioak eraikitzen edo mantentzen, ekitaldi publikoak antolatzen, su festa, merkatu salmenta, hondakin eta zaborren tratamendu eta antzekoetatik eratorriak.

  Salbuespen gisa, lesio edo kaltea emakidunak, kontratistak, administratiboak edo Aseguratzailearen antolakuntzan ez dauden pertsonek eragindakoa denean, eta Aseguratzaileak haiei ezarritako klausula baten ondorioz denean eta hori betetzea ezinbestekoa denean; halaber Udalak emandako agindu baten berehalako edo zuzeneko ondorioz eragindako lesioak ere, Aseguratzailearen erantzukizun zibila bermatua geratuko da.
- Hamar urteko Erantzukizun Zibila.
- Kontratupeko Erantzukizun Zibila, legezkoa gainditzen duenean.
- Ospitale, Osasun etxeak, Klinikak eta antzeko zentru espezializatuak.
- Hitzarmen edo akordioen bitartez onartutako obligazioak, aipatu akordioak egon ezean sortuko ez liratekeenak.
- Aldaketa genetikoa jasan duen organismoak –osotasunean edo zati batean– dituzten produktu edo jarduerak sortutako kalteen ondoriozko Erantzukizun Zibila, eta aipatu aldaketa kalte horien kausa erabakigarri eta efektiboa denean.
- Odol bankuetatik eratorritako Erantzukizuna, odola edo odol-plasmaren erauzketan, transfusioan edo/eta kontserbatzean jatorria duten kalteak, edo HIESA hartu, transmititu edo kutsatzearen ondorioz.
- Zabortegi eta/edo hondakinen tratamendu-planten ondoriozko erantzukizuna.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Zuzendaritzaren erantzukizun zibila.
- COVID-19 edo Pandemia esklusioa: Berariaz kanpo geratzen dira galera, kalte, erantzukizun, gastu, isun, zehapen edo beste edozein zenbateko, zuzenean edo zeharka honako hauen ondorioz sortuak badira, edo modu batera edo bestera honako hauetako edozeinekin lotuta badaude (horien edozein beldur edo mehatxu barne, benetakoa edo jasotakoa izan):
    - Koronabirusa (COVID-19), haren edozein mutazio edo aldaketa barne; edo
    - Pandemia edo epidemia, Osasunaren Mundu Erakundeak edo edozein gobernu-agintaritzak halakotzat jotzen duenean.
- Zahatutako herrialdeen klausula: Nazioarteko ebazpen edo erregulazioen ondoriozko Ordainketak: Kanpo geratuko da aseguratzailea edozein motatako zehapen, debeku edo murrizketetara eraman dezakeen estaldura, ordainketa edo prestazio oro, Nazio Batuen edozein ebazpen edo arauketa dela bide, edo Europar Batasunak (edo haren edozein estatu kidek), Erresuma Batuak edo Ameriketako Estatu Batuek ezarritako erregulazioak, legeak, zehapen ekonomikoak edo merkataritzakoak.
- Ciber esklusioa: Eraso logiko baten ondoriozko erreklamazioak: Akats mekaniko edo elektrikoen ondorioz segurtasun-akatsek edo ekipoek eragindako edozein kalte eta/edo kalte mota, barnean direla etenak, gaintentsioak, hornidura elektrikoaren kostu edo itzaltzeak, satelite bidezko sistemen telekomunikazio-sistemen akatsak, sistema edo gailu digitalak, sistema informatikoak edo beste edozein bitarteko digital.
- Halaber indarrean dagoen legeriak bermatzen ez dituen gertaerak kanpo geratzen dira.

BEREZKO KALTEEN ERREKLAMAZIOA

Gertaera baten ondorioz polizan adierazitako arriskuei kalte materialak sortzen badira edo aseguruaren xede den arriskuarekin zuzenean edo zeharka zerikusirik duten lesioak sortzen badira edo/eta bai kalte materialetatik eta bai lesioetatik eratorritako galerak, Aseguru-etxeak, poliza honen Aseguratu titularraren izenean jardunez, hirugarrengo erantzuleari gertaerak sortutako kalte edo galeren kalte-ordaina erreklamatzeko betebeharra hartzen du, bai modu adiskidetsuan bai judizialki.

Erreklamazioa Aseguru-etxeak bakarrik zuzenduko du, dagokien gastuak haren kontura izango direlarik eta kaltetuak horretarako beharrezkoak izan daitezken ahalordetze eta izendapenak egingo ditu.

Aseguru-etxearen kontura izango dira erreklamazioan sortutako gastuak, ezbehar eta/edo aseguru urteko 35.000.- euroko gehienezko kopuruarekin.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

LURRALDE ESPARRUA

Polizaren estaldurak mundu osoan, USA eta Kanada salbu, gertaturiko kalteen ondoriozko erantzukizun zibila/patrimonialeko erantzukizun erreklamazioak babestuko ditu.

DENBORAREN ESPARRUA

Polizaren estaldurak, hitzartutako moduan, Aseguratuaren Erantzukizun Zibila, aseguruaren indarraldi epean sortutako kalteetara mugatzen da, eta hauen ondorioak Aseguratu eta/edo Aseguratzaileari indarraldian erreklamatuak izan badira zuzeneko akzioaren bidez, poliza aseguruaren indarraldian zehar edo bere indargabetzetik gehienez 24 hilabetetako epe barruan.

Dena den, eta aurreko paragrafoan esandakoa kontuan hartuz, aseguru poliza honek estaliko du baita ere , nahiz eta Aseguratuak aseguruaren indarraldi-epe hasieran ezagutzen ez dituen, baina polizaren indarraldia hasi aurretik gertatutako ezbeharrak eta honen indarraldi hasi eta gero jakinarazi badira eta lehenago kontratatutako polizek estaltzen ez badituzte ere.

ASEGURUAREN PRIMAK

Erregularizatzeko betebeharra Aseguratuari eta Aseguruaren Hartzaileari dagokie; haiek idatziz pasatuko diote zifrei buruzko informazioa Aseguratzaileari epemuga igaro eta hurrengo hogeita hamar egunen buruan. Aipatutako erregularizazioetatik datozen primen ordainketarako epemuga-datatzat hartuko da ordainagiria kobratzeko aurkezten den eguna, eta aipatutako epemuga-datatik kontatzen hasita hilabeteko graziazko epea egongo da berau ordaintzeko.

Baldin eta ezbeharra aurreko paragrafoan aipatutako erregularizatzeko eginbeharra betetzeke dagoela gertatuz gero, edota ezbehar adierazpena oker betez gero, eta ez erregularizatze hori eta oker hori Aseguratuak edo Aseguru Hartzaileak fede txarrez egin balitu, Aseguratzaileak ez du prestaziorik eman beharrik izango.

Fede txarrik egon ez bada, Aseguratzaileak prestazioa gutxituko du adostutako primaren eta arriskua jakitera ezarriko litzatekeenaren arteko diferentziaren proportzioan.

KONTRATUAREN IRAUNPENA

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Kontratuaren iraupena 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00 ordutan hasten da eta 2024ko abenduaren 31eko 24:00 ordutan amaitzen da, urte naturaletan luzatu ahal izango dena, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino handiagoa izan.

Luzapena Kontratazio organuak erabakiko du eta kontratugilarentzat nahitanahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, luzapenak barne, Aseguru-etxeak ezin izango du hasieran ezarritako Baldintzak, Bermeak eta Kosteak aldatu, honako salbuespenekin: aseguratutako kopuruen aldaketak eta arriskuaren larritze edo arintzeak, hauek primaren aldaketa proportzionala ekarriko luketelarik.

KUDEAKETA ADMINISTRATIBOKO BALDINTZAK

Esleipendunak behin behineko berme karta luzatuko du, agiri honetan ezarritako baldintzak onartuz. Era berean alta bat gertatzen den unean estaltze agiria emango du berehala.

Kontratua hartzen duen erakundeak Oiartzungo Udalari ezbeharrei buruzko informazioa emango dio, Udalbatzaren beharrei gehien egokitzen den euskarri informatikoan.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

OIARTZUNGO
UDALA

ONDASUNETAN IZAN LITEZKEN KALTEEN ASEGURUA

1. klausula.

Aseguru kontratu hau Baldintza Teknikoen Plegu hauetan xedatutakoak arautzen du eta, aseguratuarentzat onuragarriago izan daitekeen besteren bat hitzartzen ez bada, Aseguruaren Kontratu Legeak (1980/50 Legea, urriaren 8koa) eta administrazio kontratuari buruzko arautegiak.

Poliza honen baldintza partikularrak ondoren zehazten direnak dira, eta hauek estaldura minimoaren kontsiderazioa dute, aseguratutako ondasunengan kalte eta galera material guztiak estalita gelditzen direlarik, hauek espresuki kanporaturik ez badaude.

2. klausula. KALTE-ORDAINAREN MUGA

Aseguratutako ondasunen balio partziala eta/edo totala kontuan hartu gabe, eta beraz arau proportzionalaren aplikaziorik ez dagoelarik, poliza honetarako BALIO TOTALAREN aseguratze formula ezartzen da, 46.528.333,95.- eurotako guztizko baturarekin.

3. klausula. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea zera da: Oiartzungo Udalaren jabegokoak diren ondasunetan gerta litezkeen ezbeharren ondoriozko kalte eta galera materialen estaldura. Oiartzungo Udala, Udal entitate propioa eta haren menpeko erakunde autonomoak direla ulertzen da eta kontratu honek haren ondasun guztiak barneratuko ditu, edozein titulu juridiko dela medio, arrendamentua barne.

4. klausula. ASEGURUAREN HARTZAILEA

Aseguruaren hartzailea:	OIARTZUNGO Udala
IFK:	P2006800C
Helbidea:	Done Eztebe plaza 1
	20180 -OIARTZUN- Gipuzkoa

5. klausula. ARRISKUAREN DATUAK

Arriskua: Bakarra

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

6. klausula. ASEGURATUAK

Aseguru hartzailea

7. klausula. ASEGURATUTAKO ARRISKUAREN EZAUGARRI OROKORRAK

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA: UDALA

Jarduera: UDALA

8. klausula. DEFINIZIOAK

Poliza honen eraginetarako, kontzeptu hauek honela ulertuko dira:

- ASEGURATZAILEA: Poliza honen erakunde (aseguru-etxe) jaulkitzailea da, aseguratzaile gisa, prima kobratuz, kontratu honen xede diren arriskuen estaldura bere gain hartzen du, polizan ezarritako baldintzen arabera. Erakunde hori Espainiako Erresumako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren gainbegiratzepean dago aseguratze jardueran, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren eta Pentsio Funtsen bitartez.

- ASEGURUAREN HARTZAILEA: Kontratu hau aseguru-etxearekin sinatzen duen pertsona. Berari dagozkio kontratutik eratorritako betebeharrak eta eginbideak, Aseguratuari dagozkionak salbu.

- ASEGURATUA: Berari dagozkio kontratutik eratorritako eskubideak.

- ONURADUNA: Aseguratuak izendatu duena, ezbeharra gertatuz gero, polizaren arabera dagokion kalte-ordaina jasotzeko.

- POLIZA: Agiri honetan formalizatzen da aseguruaren kontratua eta osagai hauek ditu: baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria, baldintza teknikoen agiri hau eta kontratu honek dirauen bitartean aseguru honen babesean alderdiek sinatutako aldaketa, eranskin eta gainerako agiriak.

- PRIMA: Aseguruaren prezioa; ordainagirian sartuko dira era berean Aseguruaren Hartzaileari legez ezar dakizkiokeen zerga eta errekarguak, edozelan ere esleipendunak eskainitako prezioan sartuak egongo direnak, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian aurreikusitakoaren arabera.

- ADOSTUTAKO BALIOA: Aseguratutako interesari polizan ezarritako balioa, Aseguratzaileak eta Aseguratuak espresuki onartutakoa, eta kalte-ordainaren kalkulurako kontutan hartu beharko dena.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- KOPURU ASEGURATUA: Polizaren Baldintza Partikularretan ezarritako kopurua, edo, kasua balitz, Aseguru-etxeak egindako eskaintza, Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzeko kalte-ordainetan eman behar duen gehieneko kopurua ezartzen duena.

  Kopuru hori ezberdina izan liteke hitzartu den aseguru motaren arabera. Hona hemen motak:

  - BALIO TOTALEKO ASEGURUA: Aseguru mota honek ondasunen balio osoa eta erreala bermatzen du. Ezbehar bat gertatzean, aseguraturiko kopurua ondasunen balio erreala baino apalagoa balitz, kalte-ordaina zehazteko orduan, erregela proportzionala aplikatuko da.

  - BALIO PARTZIALEKO ASEGURUA: Aseguru mota honek portzentaje bateraino bermatzen du. Polizaren Baldintza Partikularretan zehazten da ehunekoa, aseguratutako ondasunen balio oso eta errealtzat adierazitako kopuru osoaren gainean. Ezbeharra gertatuz gero, kalteak bermatutako portzentaje horretaraino ordainduko dira gehienez, betiere aseguratutako ondasunen balio erreal eta osoak polizan adierazitako kopurua gainditzen ez duenean. Kopuru hori gaindituko balu, kalte-ordaina zehazterakoan, erregela proportzionala aplikatuko da.

  - KALTE-ORDAIN MUGATUKO ASEGURUA: Aseguru mota honek arriskua duten ondasunen balio osoa bermatzen du, aseguratzailearen erantzukizuna polizaren baldintza partikularretan zehazten den kopuru finkora mugatuz. Ezbehar bat gertatzean, aseguraturiko kopurua ondasunen balio erreala baino apalagoa balitz, erregela proportzionala aplikatuko da.

  - LEHEN ARRISKUKO ASEGURUA: Aseguru mota honetan kopuru jakin bateraino bermatzen da arriskua, aseguratutako ondasunen balio erreala eta osoa alde batera utzita, eta, beraz, infra-asegurutik eratortzen den erregela proportzionala aplikatu gabe.

- FRANKIZIA: Ezbehar bakoitzean dagokion kalte-ordainetik kenduko den kopurua, portzentajea edo denbora epea, espresuki adostutakoa.

- EZBEHARRA: Egitate bat da, zeinen ondorio ekonomiko kaltegarriak polizak estaltzen dituen. Gertaera beretik datozen kalteek ezbehar bakarra osatzen dute.

- KALTE MATERIALAK: Bermatutako ondasunen hondatzea edo suntsitzea, polizan deskribatutako lekuan.

- BERRIAREN BALIOA EDO BERRIA JARTZEA: Kaltetutako ondasuna konpontzearen, berreraikitzearen edo berria jartzearen kostua, ezbeharraren lekuan, horretarako material berriak erabiliz. Berritzearen tamaina, mota eta kalitatea kaltetutako ondasunaren antzekoak izango dira eta ohiko garraioko gastuak,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

lizentzia-, administrazio baimen-, profesionalen zerbitzu-sari eta kostu horretan legez nahitaez sartzen diren beste gastuak barneratuko dira.

- BALIO ERREALA: Kaltetutako ondasuna konpontzearen, berreraikitzearen edo berria jartzearen kostua, ezbeharraren lekuan, horretarako material berriak erabiliz. Berritzearen tamaina, mota eta kalitatea kaltetutako ondasunaren antzekoak izango dira eta ohiko garraioko gastuak, lizentzia-, administrazio baimen-, profesionalen zerbitzu-sari eta kostu horretan legez nahitaez sartzen diren beste gastuak barneratuko dira, ezbeharra gertatu aurretxoan erabilera, antzinatasun, zaharkitze eta ondasunaren egoeragatik ondasunak izandako balio-galera kenduz.

- LAPURRETA: Lapurretatzat hartzen da bermaturiko ondasunak hirugarrengoek legez kanpo bereganatzea, jabearen gogoz kontra; horretarako indarra erabiliz gauzakietan edo haiek dauden lokaletan, eta larderia edo indarkeria erabiliz gauzaki haiek zaintzen edo daramatzaten pertsonen aurka.

- EBASKETA: Ebasketa da bermaturiko ondasunak hirugarrengoek legez kanpo bereganatzea, jabearen gogoz kontra; horretarako indarrik erabili gabe gauzakietan edota larderia edo indarkeria erabili gabe pertsonen aurka.

- EDUKIA:

  a) MAKINAK ETA ALTZARIAK: Mota guztietako ondasun higigarriak, makina industrialak, finkoak ez diren instalazioak, makinak (urari dagozkionak eta energia elektrikoa hartze, ekoizte eta eraldatzekoak barne), tximitsorratz, eguzki-plakak, sorgailuak, kontrol automatikoko pibotak, zaintza-kamarak, antenak, telekomunikaziozko errepikagailuak, motorrak, argindar koadroak, erremintak, ordezko piezak, argi aparatuak, hozkailu edo berogailuak, material, makina eta bulego altzariak, altzari profesionalak, balio dekoratiboa edo artistikoa dutenak, koadroak barne, aparatuak, lan-tresnak, errotuluak (argidunak edo ez), balio higigarri publikoak eta pribatuak, patroiak, modeloak, moldeak, matrizak, planoak, diseinuak, fitxategiak, artxiboak, mikrofilmak, pelikulak eta argazkiak, eta oro har, bermaturiko establezimenduaren esparruan aurkitzen diren eta jardueragatik aseguratuaren jabetzakoak diren instalazio higigarri eta tresnak guztiak.

     Era berean, telebistako, irratiko eta komunikazioko banakako antenak, ekipo telefonikoak, ikus-entzuneko aparatuak, datuak prozesatzeko ekipoak, tresnak, periferikoak, ekipo osagarriak eta hauen euskarriak, prozesatutako datuen artxiboak eta bermaturiko establezimenduaren esparruan edo haren menpeko lokalen esparruan aurkitzen diren gainerako gauza eta/edo gauzakiak.

     Aurresandako edukiak aseguruan barneratzen diren eraikin batetik bestera eraman ahal izango dira, behin behingoz edo behin betikoz, zerbitzuaren beharrek horretara behartzen dutenean, nahiz eta egoera berria eta hasierakoa ez egon aldamenean eta oro har, eduki absolutuak, erreparo edo salbuespenik gabe, aseguratutako arriskuekiko.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

b) SALGAIAK ETA IZAKINAK: Lehengaiak edo osagarriak, egite-prozesuan dauden produktuak edo amaitutakoak, aseguraturiko establezimenduan beraren jardueragatik daudenak eta haien jabea Aseguratua denean, Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako salbuespenekin.

- EDUKITZAILEA: Ondasun higiezinak eta haiei erantsitako obrak, instalazio finkoak, energia banakuntzarako eta zerbitzuetarako galeriak (ura, gasa, berokuntza, elektrizitate, antena kolektiboak, telefonia, teleprozesu, saneamentu eta bestelakoak), itxitura lanak, lurpeko lanak eta zimenduak, eta halaber aseguraturiko establezimenduaren esparru barruan dauden eta Aseguratuaren jabetzakoak diren zerbitzu eta jolas instalazio guztiak. Jabetza horizontal edo proindibisoaren kasuan, Aseguratuari dagokion zati proportzionala barne hartzen du, aseguraturiko establezimendua kokatua dagoen eraikinaren gune amankomunetan jabekide gisa duen portzentajearen arabera.

  Edukitzailearen zati osagarritzat hartzen dira dekorazioko elementu finkoak, hala nola sabai aizunak, maketak, ehunez jantzitakoak, zoru, pareta eta sabaiei itsatsitako egur eta paper margotuak, pertsianak eta oro har, inongo erreparo edo salbuespenik gabe, higiezinetan daudenean edo egon daitezkeenean, eraikuntzaren parte denean, haren sendotasunerako, apaingarrirako, higienerako, erosotasunerako edo erabilerarako, halaber kirol instalazioak, hesiak eta banakuntza eta perimetro hormak, aseguratuaren establezimenduan badaude edo hura mugatzen badute (lorategi eta kanpo obrak barne).

  Halaber, kontzeptu honen barruan zera barneratzen da: berriztatze, hobetze eta/edo egokitze obretara zuzendutako materialen balioa, bai higiezinen barruan bai eta alboko kanpoaldean daudenean ere.

  Gorago definitu dugun Edukitzailea Aseguratuak errentan hartua edo okupazioa beste edozein titulu juridikoz hartua duenean, Baldintza Partikularretan espresuki jasoz gero, aseguraturiko kopurua zein den adierazita, Edukitzaile izaera ezar liteke soilik dekorazioko elementu finko, haien hobekuntza eta egokitzapenari buruz, eta halaber barneko banaketa eta zatiketa elementuekiko, kristal, beira eta ispiluak, egoki instalatuak daudenean eta aseguratuak berak jarriak direnean.

9. klausula. ASEGURATUTAKO ONDASUNAK

EDUKIA eta EDUKITZAILEA bezala aurrez definitu direnez gain, kanpoaldean baino hauen esparruaren barruan aurki daitezkeenak barneratuak kontsideratzen dira. Ondorengoak lirateke:

a) Bermaturiko establezimenduko esparruan dauden Udal enplegatuen eta korporatiboen jabetzako ondasunak, hala nola lanabesak, arropa eta gauzakiak. Estaldura honetatik kanpo geratzen dira motordun ibilgailuak eta beraien edukia,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

halaber kanpo geratzen dira eskudirua eta ondorengo c) atalean erlazionatutako beste balio handiko gauzak.

b) Hirugarrengoen jabetzako ondasunak, aseguratuaren zaintzapean eta aseguraturiko establezimenduaren esparruan daudenean (kanpoan aire librean baina bermaturiko establezimenduaren esparruan aurkitzen direnak barne, baldin eta establezimendutik 150 m baino haratago ez badaude) Aseguru-hartzailea edo/eta Aseguratua ondasun horiek aseguratuta eduki beharrean dagoenean edo pairatu dituzten kalteen erantzule zibila baldin bada.

c) Balio handiko gauzak: Balio higarri publiko eta pribatuak, komertzioaren ondoriozkoak, arte lanak, balio artistikoa duten koadroak, eskulturak, liburu-bildumak, bilduma filatelikoak eta numismatikoak, balio historikoa duten gauzak, gai artistikoak, harribitxiak, metal baliotsuak, bildumak, bitxiak eta oro har diruz balio esanguratsua dutenak aseguru-hartzailearen edo/eta aseguratuaren jabetzakoak direnean edo honek zaintzapean dituenean.

d) Eskudirua, taloiak, txekeak, zor-agiriak, kreditu-, zor- eta erosketa-txartelak, aurrez-ordaindutako telefono txartelak, erabilerarako balio monetarioa duten txartelak eta antzekoak, posta zigiluak, tinbreak, tinbredun gaiak eta oro har, edozein motatako bildumak

e) Lurreko ibilgailuak, aseguratutako ondasunen barrutietan geldialdian dagoen makineria barne.

f) Aseguratutako ondasunak, hauek egoten diren esparrutik kanpora garraiatzen direnean, karga eta deskarga lanetan gertatutako ezbeharrak barne, bai eta bitarteko egonaldiak azken lekuan entregatu bitartean.

g) Aseguratutako ondasunak aldi baterako egon ohi diren esparruetatik lekualdatuak izan direnean, Espainiako Estatuko beste edozein lurraldetara konpontzeko, mantentze-lanetarako, erakusketarako edota Aseguru-hartzaile edota Aseguratuaren beste beharretarako.

h) Ubideak, hormak (eraikuntzetatik bereizitako lurrak eusteko hormak barne), hesiak, eta beste itxiturak edo eraikuntza elementuak, bereizitakoak barne, linea elektrikoen euskarri diren dorreak, igerilekuak, frontoiak, futbol zelaiak eta kirol instalazioak.

i) Obra txikiak, bai eta eraikuntza ondasunak, hauen helburua edozein gehikuntza, aldaketa edo konponketetan barneratzea denean eta aseguratutako ondasunetan egiten diren mantenu edo kontserbazio lanak, hauetarako erabiltzen diren material, ordezko, erraminta, makinaria, ekipo laguntzaile eta aparatu barne, aseguru-hartzailearen edota aseguratuaren jabetzakoak edo ardurapean daudenean.

   Obra amaieragatik estaldura hau amaitzean, eragindako ondasunak poliza honen estaldurapean daudela kontsideratuko dira

j) Obrek eragin zuzena erasaten dien aseguratutako ondasunak.

k) Lorategiak, zuhaitzak, landareak, zuhaixka, zelai eta antzekoak, bai eta altzari urbanoak, lurren egokitzapenak suposatzen duen kostua barne, beti ere

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

aseguratutako esparruen barne edo kanpo dekorazioaren zati direnean edo aldameneko ingurunearen zati direnean.

l) Estatuak, iturriak eta eraikin itxien kanpoaldean dauden gainerako monumentuak, aseguratutako esparruen aldameneko ingurunearen zati direnean edo dekorazioaren zati direnean.

m) Patroiak, moldeak, modeloak, matrizak, planoak, diseinuak, fitxategiak, artxiboak, klixeak, mikrofilmak, pelikulak, argazkiak, eskuizkribuak, euskarri magnetikoak, programak eta gainontzeko softwarea, datuen produkzio edo/eta bilketarako ekipo elektromekaniko, elektromagnetiko eta elektronikoetan gordeta dagoenean. Ondasun hauek balio garbiagatik aseguratuko dira, gehi objektuaren edota jasotako informazioaren transkripzio edo erreprodukzio gastua.

n) Ondasun edo ekipo elektronikoak, informatikoak eta ikus-entzunezkoak. Datuen prozesamendurako ekipoak, datuen euskarri magnetikoak, hala nola kanpoko diskoak, disketeak, kaseteak, zinta edo fitxa magnetikoak eta zulagailuak, bermatuta geldituko dira aseguratutako establezimenduan baldin baleude.

o) Eskuratze berriak.

* I. ERANSKINEAN aseguratze honen xede diren ondasunen zerrenda eransten da.

10. klausula. ESTALITAKO ARRISKUAK

A) BERME NAGUSIA / OINARRIZKO ESTALDURA

BERME NAGUSIAK ESTALITAKO ARRISKUAK / OINARRIZKO ESTALDURA

Plegu honetan jasotako mugen barruan, Aseguru-etxeak ondasunek izandako kalte edota galera material zuzenak ordainduko ditu, espresuki kanporatua ez dagoen kalte materialak sortutakoa denean, bai eta hauen ezinbesteko eraginek sortutakoa denean, EDUKI ETA EDUKITZAILEARENTZAT kasu bakoitzean bermaturiko kopuruaren mugaraino. Kalteak honako eragile hauen ondorioz gertatu diren kasuan ordainduko ditu:

1) SUTEA, TXIMISTA ETA LEHERKETA.
   a) SUTEA, sortu duen kausa zeinahi izan delarik ere.
   b) TXIMISTA ZUZENEAN ERORTZEA, nahiz eta ondoren suterik ez sortu.
   c) Edozein eratako LEHERKETA edo INPLOSIO, non eta haiek ez diren gertatu presio saiakuntzetan, energia nuklearrean, lehergaien erabilera, manipulazio edo metatzearen ondorioz.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Berme horretatik kanpo honako hauek gelditzen dira:

a) Bermatutako ondasunek hartziduragatik edo berezko berotzeagatik izan dituzten kalteak.

b) Bermatutako ondasunek izandako kalteak soilik beroagatik gertatzen direnean, berogailu-, aire girogailu-, argiteria-, su-aparatuen ukipen zuzen edo zeharkakoagatik, erretzaileen istripu edo etxeko istripuen ondorioz, bermatutako gauzakiak sutara bakarka erortzen direnean, baldin eta gertaera horiek berez sutearen ondorioz gertatzen ez badira, edota sutea gorago aipatutako arrazoi horiengatik gertatzen bada.

2) FENOMENO ATMOSFERIKO hauek: HAIZEA eta hark bultzaturiko GAUZAKIEN KOLPEA, EURIA, HARRIA edo TXINGORRA eta ELURRA, betiere orduko eta metro koadroko 40 litrotik gorako prezipitazioa gertatzen bada, EURIAren kasuan; HAIZEAREN kasuan, orduko 96 km-tik gorako abiadurakoa denean eta edozein dela haien intentsitatea, ELUR ETA HARRIA edo TXINGORRAren kasuan.

Fenomeno horien magnitudea eta intentsitatea hurbilen dagoen Institutu Meteorologikoak egiaztatu beharko ditu ziurtagiri bidez. Ezintasun teknikoa gertatuz gero, esaterako, bermaturiko arriskua haranean kokatua egotea edo behatokian bertan kalteak gertatuz gero, haren magnitude eta intentsitate erreala egiaztatzearren, kontuan hartuko dira peritu-balioespenak, kaltearen benetako norainokoan oinarrituta eginak, edota zuzenbidean onartua dagoen beste edozein probaren bidez ateratakoak.

Estalduratik kanpo gelditzen dira itogin, ur iragazte eta hezeguneengatik sortutako kalteak.

3) URA, bermaturiko edukitzailearen zati diren edota bermaturiko ondasunek dituzten hodi, aparatu edo deposituen hauste, lehertze, gainezkatze edo trabatzetik datorrenean, eta halaber ura balbulak, giltzak edo iturriak ez ixtetik datorrenean, edota aldameneko lokal eta jabetza horizontal proindibisotik hirugarrengoen jabetzetatik datorrenean ere.

4) UHOLDEAK, haiek irteera natural gabeko lakuek, ubideek, erretenek eta gizakiak eraikitako gainerako ur- edo ibai-ibilbideek gainezka egiteagatik edo desbideratzeagatik sortutakoak direnean, eta halaber estolda, kolektore eta bestelako lurpeko ibilbideek gainezka egin, lehertu edo matxuratzeagatik, betiere uholdea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak babesten dituen arriskuei dagozkien gertaera edo fenomenoek eraginda gertatu ez denean.

5) KEA, bat-batean eta ezbeharrez gertatua denean.

6) BANDALISMO EKINTZAK edo ASMO TXARREZ EGINDAKOAK, halakotzat jotzen dira bermatutako ondasunetan nahita, kalte egiteko asmoz, egiten diren ekintzak; egileak honako hauek ez direnean: Aseguratua,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Aseguruaren hartzailea, eta haien senitartekoak edo haien mendean daudenak edo haien bizikide edota zuzenbidean baliozkoa den beste edozein tituluren bidez (errentaria, gozamenduna, etab.) establezimendua okupatzen dutenak.

Salbuetsiak gelditzen dira bermaturiko establezimenduaren fatxadan egindako pintaketak, idazkunak, jarritako kartelak eta antzekoak, eta kristal, beira, ispilu, errotulu, iragarki eta toldoetan egindako kalteak.

7) LISKAR EKINTZAK, manifestazio eta bileretan gertatutakoak, indarreko legedian xedatutakoaren arabera, eta halaber LEGEZKO LANUZTEETAN gertatutakoak, baldin eta haiek herri matxinadaren izaera ez badute.

   Lanean geraldi osoa, partziala edo nahita motel aritzeak sortutako kalteak kanpo gelditzen dira; bai eta zeinahi fabrikazio prozesuetan atzerapen edo geldialdiak ere.

   Era berean, salbuetsiak gelditzen dira bermaturiko establezimenduaren fatxadan egindako pintaketak, idazkunak, jarritako kartelak eta antzekoak, eta kristal, beira, ispilu, errotulu, iragarki eta toldoetan egindako kalteak.

8) AIREONTZIEN ERORIKOA EDO KOLPEA eta haietatik askatzen diren gauzakiena.

9) Aireontziek sortutako SOINU-UHINAK.

10) LURREKO IBILGAILUEN TALKA, edota haiek garraiaturiko salgaiena, honako hauek salbu: kristal, beira, errotulu, iragarki eta toldoetan izandako kalteak, eta aseguratuaren jabetzakoak edo hark kontrolaturiko ibilgailuek eragindakoak edota establezimendua okupatzen duenak edo haren mendeko pertsonek izandakoak, edo ibilgailuek berek izandako kalteak.

11) SUTEAK ITZALTZEKO INSTALAZIOEN HUTSEGITEA, uraren edo beste edozein gairen ezbeharrezko ihesa eragiten duena suteak itzaltzeko sisteman, estankotasun eskasia, haustura, ihes edo aipatutako sistemaren hutsegite orokorrak sorrarazia.

    "Itzaltze sistema" terminoan sartzen dira: ur hoditeria eta deposituak, suteetako ur-harguneak, sute-ahoak, balbulak eta, oro har, soilik sua itzaltzeko erabiltzen den zeinahi instalazio edo tresneria, edo aldi berean sua itzaltzeko eta beste xede batzuetarako erabiltzen direnak.

    "Itzaltze sistemak" berak izaten dituen kalteak salbuetsita daude, eta halaber isuritako substantzia edo likido galera ere.

12) KALTE ELEKTRIKOAK, energia elektrikoaren ekoizpen, banakuntza eta transformazioaren makinerian sortutakoak (sorgailu, transformadore, aginte, banaketa eta kontrol koadroenak; argiteri lineak, indarrezkoak eta lagungarriak, etb.) bai eta edozein aparatu edo elementu elektriko edota elektronikoetan eta hauen osagarrietan (komunikazioguneak, telefonoak, zerbitzariak, ordenagailuak, faxak, fotokopiagailuak, pertsonak bilatzeko gailuak, aginte eta

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

kontrol aparatuak, etb.) ezohiko korronteak, zirkuitulabur, berezko erretzeak, funtzionamenduari lotutako arrazoiak eta/edo beste perturbazio elektrikoengatik, beti ere kalteak elektrizitateak berak edo tximistak sortutakoak balira, eta gertaera hauen ondoren sutea gertatuko ez balitz ere.

Kalte elektrikoen ondoriozko ezbeharretan, Aseguru etxeak lehen arrisku moduan ordainduko du, kalte-ordainaren gehieneko muga ezbehar bakoitzeko 100.000 eurotakoa izango delarik.

Halaber berme honekin estalita geratzen dira:

a) Aseguraturiko ondasunetan gertaturiko kalteak, Agintaritzak edo Aseguratuak hartutako neurrien ondorioz gertatuak, hain zuzen sutea eragozteko, mozteko edo gutxitzeko edo estalitako beste edozein arrisku gutxitzeko.

   Aseguratzailearen kargu egongo dira aseguratuak beharrezkoak jo dituen gastuen ordainketa, gertatutako kaltea saihesteko edo gutxitzeko izan denean, helburua lortu ez arren. Ordaindutako gastuen gehi kalte-ordainaren itzulketa ez dira aseguratutako guztizko kopurua baino gehiago izango, beti ere gastu horiek Aseguratzaileak esanda ez badira ordaindu.

   Era berean, bermaturik geratuko dira ohiz kanpoko gastuak, ohiz kanpoko izaera duten prebentzio-neurriak hartzeak eragindakoak, ezbeharra, modu frogagarri batean saihesteko beharrezkoak izan direnean. Kasu horretan aseguratuak frogatu egin beharko du neurri hauek hartu ez balitu, ezbeharra halabeharrez gertatutako litzatekeela. Halere, aipatu neurriak hartuta ere ezbeharra gertatzen bada, sortutako gastuak salbamenduzkoak bezala kontsideratuko dira.

b) Aseguratuari eta/edo Aseguru Hartzaileari bermatutako ondasunen garraioak eragindako gastuak edota estalitako ezbehar batetik salbatzeko hartutako edozein neurrik eragindakoak.

c) Salbatutako ondasunak pairatutako balio-gutxitzea edo galerak aurreko ataletan jasotako neurriek sortutakoak badira.

d) Ezbeharraren ondorioz desagertutako gauzen balioa, betiere Aseguratuak eta/edo Hartzaileak lehendik bazirela egiaztatzen badu eta Aseguratzaileak lapurtuak edo ebatsiak izan direla frogatuko ez balu.

e) Aseguratutako ondasunetan egiten diren zabaltze-, aldatze- edota konpontze-obra txikiei kalteak eta mantenu eta kontserbazio lanei kalteak, material, ordezko, erraminta, makina-ekipo eta aparailuak barne, hauek Aseguru-hartzailearen edota Aseguratuaren jabetzakoak direnean edo legalki bere ardurapean daudenean.

B) BERME NAGUSIARI BERME OSAGARRIAK

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Berme nagusiarekiko osagarriak diren ondorengo bermeak ere estalita geratzen dira, beti ere Polizaren Berme nagusia/Oinarrizko estaldura kontutan harturik kalte-ordaina ordaintzeko eskubidea sortzen duen ezbeharretik eratorritakoak badira:

1. ASEGURATUTAKO ESPARRUETATIK KANPO ASEGURATUTAKO ONDASUNEN GARRAIOA

   Aseguru etxeak aseguratutako ondasunekiko kalte-ordaina ordainduko du, lehen arriskuko balioarekin, haien garraioan eman daitekeen kalte edota istripuzko galera materialen aurrean, edozein kasutan ezbehar bakoitzeko 60.000 eurotako kalte-ordainaren mugarekin.

   Arte-lan, fondo bibliografiko edota artxibistikoen kasuan emandako estaldura, “iltzetik iltzerako” delakoa izango da, egonaldiak barne eta demeritu artistikoaren klausulari estaldura handituz.

2. BEHARREZKO KALERATZEA

   Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak aseguratutako establezimenduaren behin behineko kaleratzeak bermatuko dizkio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari, lehen arriskuz, kaleratze hauek polizan jasotako ezbehar batek eragindakoak baldin badira. Estaldurak ezbeharrak eragindako kalteak konpondu bitartean iraungo du. Ordainketa altzariak, etxeko hornidura, tresneria, edota salgaien garraioari legokioke eta baita hustutako establezimenduak zituen antzeko baldintzetako higiezin baten alokairuari ere, edozein kasutan ezbehar bakoitzeko 30.000 eurotako mugarekin.

   Estalduraren epea konponketak irauten duen bitartean establezimendua ezin erabilirik geratzen den bitartekoa izango da, ezbeharraren kalteen azterketa egin duten peritoek ezarritakoa, edozein kasutan gehienez urtebetekoa. Aseguratua maizterra denean, kalte-ordainari ezbeharra jasan duen higiezinari dagokion errentaren kopurua kenduko zaio. Aseguratua jabea denean berriz, jabe bezala ordaindu beharreko gastu amankomunen kopurua kenduko zaio.

   Peritoen ustetan edo gaiari buruz indarrean dauden xedapenekin adostasunean, higiezinaren ezin erabilia guztizkoa eta beraz, behin betikoa denean, kalte-ordaina bi urteraino luzatu ahalko da.

3. DOKUMENTU, ARTXIBO, TITULU, BALORE, FILM ERREBELATUEN BIRJARTZE KOSTUA ETA EUSKARRI MAGNETIKOETAN DAUDEN DATUAK BERRIZ LORTZEA ETA INPRIMATZEA

   Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak dokumentu, artxibo, titulu, balore, film errebelatuen birjartze kostuen eta euskarri magnetikoetan dauden datuak berriz lortzearen eta inprimatzearen kostuen ordainketa bermatuko dizkio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari, lehen arriskuz, ezbehar bakoitzeko 90.000 euroko mugarekin, poliza honetan jasotako ezbehar batengatik desagertu edo

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

kaltetuko balira, betiere Aseguru-hartzaile edota Aseguratuarentzat baliagarriak direnean eta hauen birjartzea ezbeharra gertatze-datatik hurrengo bi urtetan egiten bada gehienez.

4. PLANO, PATROI, DISEINU, MOLDE, EREDU ETA MATRIZEN BIRJARTZE, LORTZE ETA TRANSKRIBATZE KOSTUA

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak ordainketa bermatuko dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari plano, patroi, diseinu, molde, eredu eta matrizen birjartze, lortze eta transkribatze kostuari dagozkionak, lehen arriskuz, ezbehar bakoitzeko 90.000 euroko mugarekin, poliza honetan jasotako ezbehar batengatik desagertu edo kaltetuko balira, betiere Aseguru-hartzaile edota Aseguratuarentzat baliagarriak direnean eta hauen birjartzea ezbeharra gertatze-datatik hurrengo bi urtetan egiten bada gehienez.

5. SALBAMENDU, HONDAKINAK KENTZEKO ETA ERAISTEKO GASTUAK

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak ordainketa bermatuko dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari EDUKITZAILE edo EDUKIarentzat, kasuan kasu, arrisku guztietarako aseguratu den kopuru osoaren %10eko mugarekin, salbamendu, hondakinak kentzeko eta eraisteko gastuei dagozkionean.
Gastu horietan hondakinen garraioa barneratzen da, hauek uztea onartuta dagoen hurbileneko lekura arte, beti ere gastu hauek beharrezkoak direnean eta ezbeharra aseguru-bermean barneraturik baldin badago.

6. LOKATZA KENTZEKO ETA LOHI-ERAUZKETA GASTUAK

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak ordainketa bermatuko dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari EDUKITZAILE edo EDUKIarentzat arrisku guztietarako aseguratu den kopuru osoaren %10eko mugarekin, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kalte-ordaina ordaindu behar ez duen uholde kasuetan sortutako lokatza kentzeko eta lohia erauzteko gastuei dagozkionean.

7. ITZALTZE GASTUAK

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak ordainketa bermatuko dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari EDUKITZAILE edo EDUKIarentzat arrisku guztietarako aseguratu den kopuru osoaren %10eko mugarekin, Agintaritzak edo Aseguratuak sutea edo kontratu honetan jasotako edozein ezbehar eten, eragotzi edo itzaltzeko hartutako beharrezko neurrien aplikazioak sorturiko gastuei dagozkionak.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Era berean, estaldura honen bidez bermaturik gelditzen dira, itzaltze gastuak, SUHILTZAILEEN ZERBITZUAren udal tasa, eta ezbeharra ekiditeko erabilitako TRESNEN BETETZE KOSTUAri dagozkionak.

Ez dira itzaltze gastutzat jotzen sutearen aurkako tresnak betetzeko kostua, haiek probak egiteko edo langileria trebatzeko edo aldian behingo ikuskapenak egiteko erabiltzen direnean.

8. URAGATIKO KALTEEK ERAGINDAKO MATXUREN KONPONKETA ETA/EDO LOKALIZAZIOAREN GASTUAK

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak ordainketa bermatuko dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari uraren banaketa edo jaitsiera hoditeriaren leherketa, haustura, gainezkatze edo trabatzeek sortutako matxuren konpontzeak edo matxuraren kokapena zehazteak sortuko lituzketen gastuei dagozkionak, lehen arriskuz, ezbehar bakoitzeko 30.000 eurotako gehienezko mugarekin.

9. JATORRI ATZERRIKO MAKINERIA

Atzerritik ekarritako makineria kaltetua gertatuko balitz eta tokiko piezekin konpontzea ezinezkoa izango balitz, edo suntsiketa kasuan, kaltetutakoaren ahalmen berdina duen tokiko makineriarekin ordeztea ezinezkoa izango balitz eta beraz piezaren edo makinariaren birjartzea atzerriko gaiekin egitea beharrezkoa denean, kontratu honen efektuetarako eta berriaren balioaren estalduraraako ezartzen den prezioa ezbeharra gertatzen denean jatorrizko merkatuan dauden prezioen arabera ezarriko da, inportazioak sor lezakeen kostuak eta egon litekeen edozein bonifikazio kontutan harturik.

10. JATORRI ATZERRIKO LEHENGAIAK

Atzerritik ekarritako lehen gaiak kaltetuta gertatuko balirateke eta hauek antzeko kalitateko eta erabilgarritasun berdineko tokiko gaiekin ordezkatzea ezinezkoa balitz eta beraz hauen ordezkapena atzerritik egin beharko balitz, kontratu honen efektuetarako, birjartze prezioa ezbeharra gertatzen denean jatorrizko merkatuko prezioen arabera ezarriko da, inportazioak sor lezakeen kostuak eta egon litekeen edozein bonifikazio kontutan harturik.

11. ZIMENDATZEAK

Arrazoi teknikoak direla medio aseguratutako zimendatzea dagokion eraikuntza edo makineria berreraikitzeko erabiliko ez balitz, kalte-ordaina galera-prezioa kontutan harturik ordainduko da.

12. ZAINKETA ZERBITZUA

Ezbehar bat gertatu aurreko higiezin baten zainketarako ohiko babesak berreskuratzen diren bitartean, segurtasun enpresa baten zerbitzu espezializatuen

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

kontratazio gastuak estalita geratuko dira, gehieneko epea 8,5 egun jarraian izango delarik, ezbeharraren gertatze-datatik kontatzen hasita.

13. ZERBITZU-SARI PROFESIONALAK

Polizak estaltzen duen edozein ezbehar dela medio aseguratutako jabetza hondatuta edo kaltetuta gertatuko balitz eta haren lehengoratzerako arkitekto, ingeniari, ikuskatzaile, legezko aholkulari edo edozein espezialitateko profesional bat kontratatu beharko balitz, haren ordainsariak ordainduko ditu Aseguratzaileak hitzartutako mugen barruan.

Ordainduko litzatekeen kopurua ez da baimendutakoa baino handiagoa izango ez eta aipatu profesionalak biltzen dituzten Elkargo, Erakunde edo Korporazioek ezarritakoa baino txikiagoa izango

14. ASEGURATUAREN PERITUEN ZERBITZU-SARIAK

Aseguratuak izendatutako perituen ordainsariak Aseguratzaileak ordainduko ditu, bai hondamen-jatorria duten ezbeharretan edota ohiz-kanpokoetan, hau da, Aseguruen Konpentsazio Elkargoaren kontura direnean bai eta poliza berak babesten dituen ezbeharretan, hau da, Aseguru etxearen kontura direnean ere.

Ordainsarien guztizkoa kalte-ordainaren (frankizia kanpo) %3a izango da, ezbehar bakoitzeko 60,10 eurotako gutxienekoarekin eta 60.000 eurotako gehienezkoarekin, dagozkion legezko zergak gehituta.

Aseguru Etxeak zuzenean ordainduko dio/die aipatu ordainsaria Aseguratuak izendatutako peritoari edo peritoei eta dagokion peritu-aktan jasoko da gertakari hau.

C) BERME GEHIGARRIAK

A) LAPURRETA ETA ESPOLIAZIOA

Aseguru-etxeak ordainduko ditu LAPURRETA eta ESPOLIAZIOA direla medio sortutako kalteak eta halaber bermaturiko ondasunek izaten dituzten KALTE MATERIALAK aipatutako LAPURRETAren edo lapurreta saioaren ondorioz gertatu direnean haiek, honako baldintza eta termino hauetan:

a) LAPURRETA: lapurreta bezala zera ulertuko da, Aseguru-hartzaileak eta/edota Aseguratuak aseguratutako ondasunen desagerketa, suntsiketa edo hondaketagatik pairatutako galerak, hauek lapurreta edo lapurreta saiakera baten ondoriozkoak direnean eta Aseguratuarekiko arrotz diren pertsonek eta harekin bizi ez direnek edo haren menpe ez daudenek egiten dituztenean,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

beti ere egileak aseguratutako higiezinean ondoren zehaztutako moduren bat erabiliz sartu izan balira:

- Eskalatuz edo horma, sabai edo zoruak puskatuz.
- Ate, leiho edo erakusleihoa hautsiz.
- Gakorde edo normalean ateak irekitzeko erabiltzen ez diren beste instrumentuak erabiliz.
- Isilpean edo modu klandestinoan sartuz, Aseguratuak edo haren langileak jakin gabe, bere burua gordez eta delitua higiezina itxita egonda burutzen denean.
- Patio eta/edo itxitako esparruetan dauden ondasunei eragiten dien kasuetan, lapurreta burutzeko, egilea edo egileak horma edo hesiaren gainetik salto egin, eskalatu edo itxitura behartzen dutenean eta bertatik modu berdin edo ezberdina erabiliz alde egiten dutenean.

Kaxa, kutxa edo altzarietan giltzaperatua dauden objektuak direnean, haien galera edo kaltea bermatuta geratuko da soilik egileak higiezinean aurretik zehaztutako moduetako bat erabiliz sartzen direnean eta delitua burutzeko kaxak, kutxak edo altzariak puskatu edo apurtu edo gakorde edo normalean hauek irekitzeko erabiltzen ez diren beste instrumentuak erabiliz irekitzen dituztenean.

Edukiarentzako aseguratutako kopurua %100raino bermatuko da.

Edukitzailearen elementuen lapurreta:

Berme honek, aseguratutako kapitalen eta estalduraren atalean adierazitako lehen arriskuaren mugarainoko edukitzailearen elementuen Lapurreta estaltzen du,berauek, eraikuntzen barruan kokatzen diren, edo bere jatorriagatik nahitaez kanpokaldean kokaturik daudenak (ateak, leihoak, klimatizazioko kanpo unitateak, etab. …) direla ulertuaz.

Ez dira estaldura honen babespean egongo, nahiz eta edukitzaile bezala izendatuak dauden ondareak baina eraikuntzen kanpokaldean kokaturik daudenak, nahiz eta enpresa eremuaren barruan egonda ere (farolak eta/edo beren osagaiak, markesinak, kanpo itxiturak, etab. …).

Lehen arriskuaren muga: 30.000€

b) ESPOLIAZIOA: Espoliazio bezala zera ulertzen da, aseguratutako objektuen galera, Aseguru-hartzailearekiko edota Aseguratuarekiko menpekotasunezko erlazio bat duten pertsonei arrotz diren beste batzuk bizitza edo gorputza arrisku nabarian jarriz indarra erabiliz edo mehatxupean kentzen dizkietenean, objektua legez kanpo eskuratzeko asmoarekin.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Aurreko paragrafoaren efektuetarako, menpekotasunezko erlazio bat duten pertsonak honakoak dira: Aseguru-hartzailearekiko edota Aseguratuaren ordezkariak, zuzendaritza, korporazio kideak, funtzionarioak, langileak, menpekoak eta oro har, funtzioen egikaritzan menpe dagoen langileria. Aseguratutako erakundeentzat zerbitzuak ematen dituen langile oro, laneko menpekotasun-erlazioa edo menpekotasun-erlazio administratiboa (plaza jabetzan edo bitartekotzan duten funtzionarioak, kontratatuak, ETT delakoen enplegatuak, bekadunak edo antzekoak) edozein izanik ere, beti ere aipatu erakundeek ordain-saria ordaintzen dienean. Praktiketako edota trebatzen ari den langileria ere barneratzen da, bai eta korporazioak antolaturiko Jaien Batzordeetako kideak, jaien antolaketa eta garapen lanetan ari direnean, bai eta irakasle, monitore, bolondres eta kultura jarduerak, dibertimenduzkoak edo asistentziazkoak, korporazioak lagundutakoak edo bultzatutakoak direnean, antolatu edo zuzentzen dituzten gainontzeko langileak ere. Auzolanean egindako lanetan, pertsonal bolondresa, baita babes zibileko eta gainontzeko borondatezko langileak ere.

Edukiarentzat aseguratutako kopurua %100raino bermatuko da.

c) ESKUDIRUAREN, TALOI ETA BANKU TXEKEEN, ORDAINAGIRIEN, ERAMAILEAK GAUZATU DEZAKEEN TITULU EDO BALIO-AGIRIEN , EFEKTU TINBRATUEN, POSTA ZIGILUEN, ESTATUKO TINBREEN EDO EDOZEIN MOTATAKO BILDUMEN, ESKRITUREN , ESKUIZKRIBUEN, PLANOEN ETA ANTZEKO OBJEKTUEN LAPURRETA eta ESPOLIO-a, hauek aseguratutako eremuaren barruan daudenean eta era berean ondorengoen barruan:

- Altzari baten barruan giltzapeturik, ezbehar bakoitzeko 3.000 euroko mugarekin.
- Kutxa gotorretan, ezbehar bakoitzeko 10.000 euroko mugarekin.
- Higiezinen barruan, giltzapetu gabe edo kutxa gotorretik at, ezbehar bakoitzeko 1.200 euroko mugarekin.

Halaber, ezbehar bakoitzeko gehienezko 12.000 euroko mugarekin aseguratuta gelditukо dira aipatu objektuak aseguratutako establezimenduaren mugatik banketxeraino, edo alderantziz, zuzen garraiatzerakoan lapurreta edota espolioa gertatzen bada, beti ere, eginkizun hori duen ohizko pertsona edo pertsonak egiten badu/te garraio lana, gertaera goizeko zortzietatik arratsaldeko bederatziak bitartean gertatzen bada eta fondoen garraiorako indarrean dagoen legezko arautegia bete denean.

d) KALTE MATERIAL zuzenak, EDUKITZAILEARI eragindakoak, nahiz eta aseguratua ez egon, LAPURRETA edo LAPURRETA SAIOAren ondorioz, bai eta ateetan, leihoetan, hormetan, sabaietan eta zoruetan gertatzen diren kalteak ere.

Edukitzailearentzat aseguratutako kopurua %100raino bermatuko da.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

B) KRISTALAK, BEIRAK, ISPILUAK ETA ERROTULUAK, ARGIDUNAK EDO EZ

Estaldura honen bidez, Aseguratzaileak kalte materialen ordainketa bermatzen dio Aseguru-hartzaileari edota Aseguratuari, Lehen Arriskuko modalitatean eta ezbehar bakoitzeko 6.000 euroko mugarekin, kristal, beira, ispilu edo errotuluak (argidunak edo ez) hausteagatik eragindako kalteengatik eratorritakoak direnean, beti ere edukitzailearen zati finko direnean, haiek jartzearen kostua barne dela.

Berme horretatik honako hauek kanpo gelditzen dira:

a) Gainazaletan edo zilarbiziz estalitakoetan egindako urratuak, karrakatzeak, pitzadurak, altxatuak eta gainerako narriadurak.

b) Aseguraturiko establezimenduan obrak egitean, gauzak lekuz aldatzean edo instalatzean gerta daitezkeen hausturak.

c) Instalazio edo fabrikazio akatsengatik gertatzen diren kalteak.

C) EDUKITZAILEAN KALTE ESTETIKOAK

Edukitzaileari eragiten dion ezbeharra denean, baldin eta poliza honek estalia eta Aseguru-etxeak ordaindua bada, eta baldin estetika aldetik koherentzia eta jarraitutasun galera badakar aseguraturiko ondasunetan, konponketa konposizio estetikoa mantentzea ahalbidetzen duten materialekin egitea ezinezkoa bada, aseguru-etxeak ordaindu egingo ditu, ezbeharraren aurretik zuten koherentzia estetikoa lortzeko beharrezkoak diren materialen konpontze eta birjartze gastuak, Lehen Arriskuko modalitatean eta ezbehar bakoitzeko 12.000 euroko mugaraino.

Berme hau ez da aplikagarria izango historiko-artistiko gisa katalogatutako eraikinetan edo egun ez dauden materialekin eraikita badaude, eta berme honetatik bazterturik gelditzen dira igerilekuak, hesiak, hormak, zerbitzu galeriak, osasun aparatuak eta haien osagarriak, berogailu eta hozkailuen instalazioak eta aparatuak; pinturak, eraikinen lantze eta/edo akabera artistikoak.

D) ALOKAIRUEN GALERA

Aseguratutako establezimenduak dauden etxebizitzaren, lokalaren edo garajearen alokairua galduz gero Aseguru-etxeak galerak eragindako kalte-ordaina ordainduko du, Lehen Arriskuko modalitatean eta ezbehar bakoitzeko 200.000 euroko mugarekin, aseguru-etxeak poliza bidez estaltzen duen kalteren batek sortua bada.

Kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko ezbeharraren egunean benetako errenta zein zen huraxe izango da, egun horretan errentan eman gabe leudekeen etxebizitza, lokal edo garajeengatik kalte-ordainik ordainduko ez delarik. Oinarri hau hartuta egingo da kalte-ordainaren kalkulua kontuan harturik zenbat denboran

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

dagoen aseguraturiko establezimendua ezin erabiltzeko moduan, polizak babesten duen ezbeharrak sorturiko konponketen ondorioz, betiere urtebeteko alokairuaren guztizko kopurua gainditu gabe.

E) LORATEGIAK, SOROPILAK, ZUHAITZAK, LANDAREAK ETA ZUHAIXKAK BERRIZ JARTZEA

Aseguratutako eremuaren edo albo-alboko inguruaren barne edo kanpo dekorazioa osatzen duten ondasunak, Aseguru-hartzailearen edo Aseguratuaren jabetzakoak direnean, barneraturik gelditzen dira, hala nola, lorategiak, zuhaitzak, landareak, zuhaixkak, soropilak eta antzekoak, Lehen Arriskuko modalitatean, ezbehar bakoitzeko 30.000 euroko mugaraino.

F) MAKINERIAREN MATXURA ESTALDURA

Aseguratutako ondasunak. Aseguru-etxeak aseguratutako establezimenduan instalaturik dagoen makineriak jasandako kalte material zuzenak ordainduko ditu, funtzionamendu normalean edo desmuntai edo muntai prozesuan dagoenean (hura garbitzeko, aztertzeko, berrikusteko, edota tokialdatzeko) eta Aseguru-hartzailearen edota Aseguratuaren jabetzakoa denean.

Estaldura honetatik kanpo gelditzen dira: uhalak, bandak, kableak, kateak, pneumatikoak, zimentatzeak, erregailuak eta oro har higadura azkarreko edozein objektu edo erreminta aldagarri, bai eta erregai, labaingarri, hozgarri, metalizatzaile, katalizatzaile edo beste operazio baliabideen galerak sortutakoak.

Estalitako arriskuak. Aseguru-etxeak aseguratutako ondasunek istripuz, aurrez ikusi ezin daitekeen eta bapatean jasatzen dituzten kalte material zuzenak ordainduko ditu, Lehen Arriskuko modalitatean eta ezbehar bakoitzeko gehienezko 200.000 euroko mugarekin, ondorengo gertaerengatik eratorriak direnean:

a) Trebetasun eza edo zabarkeria.

b) Energia elektrikoaren akzio zuzena, zirkuitulabur, arku boltaiku edo antzeko efektu baten ondoriozkoa, bai eta aseguratutako establezimenduaren inguruan eroritako tximista batek eragindako perturbazio elektriko baten ondoriozkoa bada.

c) Diseinu, kalkulu edo muntai akatsak, material urtuketan akatsak, eraikuntza-akatsak, eskulan-akatsak eta akasdun materialen erabilerak.

d) Galdara edo lurrunaren produkziorako beste aparailuetan ur gabezia.

e) Makina beraren urraketa, indar zentrifugoaren ondoriozkoa.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

f) Aseguratutako ondasunetan sartutako edo hauek kolpatzen dituzten gorputz arrotzak.

g) Koipeztatze akatsak, piezen lasaitzeak, ohiz kanpoko ahaleginak, neke molekularra eta autoberotzeak

h) Erregulazio gailuen akatsa.

i) Beste edozein bapateko eta istripuzko ekintza, poliza honetan edota baldintzetan espresuki kanporatua bezala agertzen ez bada.

Frankizia. Estaldura honen bidez ordaingarria den edozein ezbeharretan 2.000 euroko frankizia aplikatuko da.

Kanporatutako arriskuak. Berme honetatik at geratzen dira ondorengoengatik sorturiko kalteak:

a) Baldintza agiri honetako 16. klausulan (estalduratik kanpo) jasotzen den edozein arrisku edo ondasun, makineriaren matxuraren estalduran espresuki jasota ez dagoenean.

b) Edozein motatako kalte ez zuzenak, hala nola, alokairu gabezia, lan geraldia, kontratua ez betetzea, isunak, kontratuko zigorrak eta oro har edozein irabazi-galera edo erantzukizun zibila.

c) Makinaren Fabrikatzaile edo hornitzailearen legezko edo kontratuzko erantzukizuna.

d) Aseguratutako ondasunen higadura naturalak, izaera atmosferiko, kimiko, termiko edo mekanikoa duten pixkanakako edo apurkako akzioek eragindakoak edo berezko akatsek sortutakoak.

e) Esperimentu, saiakuntza edo frogak.

D) OHI KANPOKO ARRISKUEN ESTALDURA

Ohi kanpoko arriskuen estaldura Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren bitartez bermatua geratzen da, otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera, eta indarreko gainerako lege xedapenen arabera.

11. klausula. ESKURATZE BERRIAK

Aseguruaren indarraldian Aseguratuak bereganatzen duen edozein egoera edo ondasun berri automatikoki estalita geratuko da. Bereganaketa hauek polizaren urteko epemugan erregularizatuko dira.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

12. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN ESTALDURA AUTOMATIKOA

Honako aseguruak aseguratutako kopuruaren %15eko gehikuntza automatikoa bermatzen du EDUKITZAILE eta EDUKIARENTZAT, beti ere gehikuntza arrisku berrien barneraketari, edota arriskuaren izaeraren edo ondasunen aldaketari ez dagokionean.

13. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN GAURKOTZEA

EDUKITZAILE eta EDUKIARI dagozkion aseguratutako kopuruak aseguru kontratuaren epean gertatzen diren alta eta bajak oinarritzat hartuz eguneratuko dira eta eraikuntzaren sektorean izandako gehikuntzak ere kontuan hartuko ditu, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agirian zahaztutakoari jarraiki.

14. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN KONPENTSAZIOA

Berariaz adosten da ezbeharra gertatzen denean EDUKITZAILEAN edo EDUKIAREN kontzeptuetan aseguraturiko kopurua gehiegia balitz, salgaiak eta izakinak salbu utzirik, soberakin hori bideratu ahal izango da aski hornitua ez dagoen kontzeptuari laguntzeko.

15. klausula. BERRIAREKIN ORDEZKATZEKO BERMEA

Ezarritako aseguratutako kopuruak, bai EDUKITZAILE bai EDUKIARENTZAT, egungo kostua duten bermatutako ondasunen birjartze-balioenak dira. Beraz, kalte-ordaina kaltetutako ondasuna egun horretan berri batengatik ordezteak duen kostua izango da, ondasun berri hau berdina edo antzekoa izanik eta zaharraren funtzio berdina egiteko gai izanik, ahalbide eta kalitate berdinarekin. Ez da aintzat hartuko antzinatasunagatik edo erabileragatik sortutako balio-galera eta kostuari garraio eta muntatze gastuak, eta aduana eskubideak, baleude, erantsiko zaizkio.

16. klausula. ESTALDURATIK KANPO

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira, honako hauen ondorioz sortutako edo eragindako kalte eta galerak:

a) Aseguratuaren fede txarra, dolua edo kulpa larria.

b) Gatazka armatuak (gerra deklarazio ofiziala egon ala ez), iraultza, matxinada, albaramendu, terrorismo, eta herri errebolta eta nahasmendu, konfiskazio, zeinahi gobernuk edo tokiko agintaritza edo agintaritza publikok egindako nazionalizazio edo desjabetzeak, eskubidez edo egitatez.

c) Bake garaian Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek egindako jarduketa edo egitateak.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

d) Sumendi erupzio, urakan, ekaitz, lurrikara, luizi, lur hondoratze edo lur mugimendu, eta oro har, beste edozein gertaera atmosferiko sismiko edo geologiko, Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako kasuak izan ezik.

e) Izarrarteko gorputzen edo aerolitoen erortzea.

f) Erreakzio edo erradiazio nuklear edo kutsadura erradiaktiboa.

g) Kutsadura, poluzio edo korrosioa, eta ur, aire, lur eta oro har ingurumenean gertaturiko aldaketa edo zeinahi eragin kaltegarri.

h) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen dituen egitateak, eta Botere Publikoak "Hondamendi edo Zoritxar Nazional" kalifikaturikoak.

i) Ezbehar hauen kasuan: ezohikoak edo hondamendi izaera badute ere, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak aseguratuaren eskubidea onartzen ez duenean, gertaera unean Aseguratuak Araudian edo Xedapen Osagarrietan ezarritako indarreko arauak ez betetzeagatik, eta halaber, aipatutako erakundeak ezarritako gabezia aldian gertatutakoak direnean.

j) Ornogabeak, larbak eta karraskariak.

k) Aseguratutako enpresarentzat lanean ari direnek borondatezko lan etenaldia.

l) Lurrazpiko mehategiak eta ur eta mineralen erauzketetarako ondasun eta ekipoak.

m) Hornidura elektriko, erregai, ur edo lurrin edo hozgarrien gabezia, hornidura gabezi horrek poliza honek estaltzen duen aseguratutako ondasunen gaineko kalte bat sortuko balu izan ezik.

n) Kutsadura, uzkurdura, kolore, zapore, egitura edo akaberan aldaketa, kanporatuta ez dauden beste kalte materialetatik zuzenki sortuak izan direnean izan ezik.

Kanporatua ez dagoen kalte material bat gertatzen denean izan ezik (kasu horretan ondorioztatutako kaltea soilik estaliko litzateke) ondorengo arrazoi hauengatik gertatutako galera eta kalteak kanporatuak geldituko dira:

- Izakinen edo materialen kalteak eragindako galera, fabrikazio edo prozesu operazioei egotzi daitezkeenean, aipatu izakinak edo materialak prozesatzen, manufakturatzen edo frogatzen ari direnean gertatutakoak edo hauek beste edozein modutan lantzen ari direnean.
- Exekuzio, material, eraikitze edo diseinu akatsak, edozein delarik zergatia.
- Narriatze, neke molekular, murrizketa, berezko edo ezkutuko akatsa, herdoiltze, hartzidura edo korrosio, lizun, higadura.
- Eraikuntzen edo haien zatien, zimentazioen, egitura hormen edo zoladuren uzkurtze, zabaltze, zartatze eta kolapsoak.

Era berean, kanporatuak geratuko dira ondorengo ondasunak:

a) Lur sailak, hartan edo haren gainean den ura edo bestelako substantziaren bat barne, hauen egokitze eta aldatze kostuak.

b) Paisaiak, uztak eta animaliak.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

c) Mineral eta erregaiak, fosilak, likidoak eta gasak haiek erauzi aurretik, haitzulo, lurrazpiko geruzak eta hauen edukia.

d) Uretan, ur azalean edo ur azpian dauden ondasunak, itsasoetan, lakuetan, ibaietan edo antzeko ubideetan, edo kostalde edo ertzetatik at daudenak.

e) Ibilgailu motordunak, ibilgailuen, ontzien, aireontzi, tren makineria eta antzekoak, hauek beraien beharrezko aseguruak eduki behar dituztenean, Aseguratutako Ondasunak atalean esaten dena izan ezik.

F) COVID-19 edo Pandemia esklusioa: Berariaz kanpo geratzen dira galera, kalte, erantzukizun, gastu, isun, zehapen edo beste edozein zenbateko, zuzenean edo zeharka honako hauen ondorioz sortuak badira, edo modu batera edo bestera honako hauetako edozeinekin lotuta badaude (horien edozein beldur edo mehatxu barne, benetakoa edo jasotakoa izan):

- Koronabirusa (COVID-19), haren edozein mutazio edo aldaketa barne; edo
- Pandemia edo epidemia, Osasunaren Mundu Erakundeak edo edozein gobernu-agintaritzak halakotzat jotzen duenean.

G) Zahatutako herrialdeen klausula: Nazioarteko ebazpen edo erregulazioen ondoriozko Ordainketak: Kanpo geratuko da aseguratzailea edozein motatako zehapen, debeku edo murrizketetara eraman dezakeen estaldura, ordainketa edo prestazio oro, Nazio Batuen edozein ebazpen edo arauketa dela bide, edo Europar Batasunak (edo haren edozein estatu kidek), Erresuma Batuak edo Ameriketako Estatu Batuek ezarritako erregulazioak, legeak, zehapen ekonomikoak edo merkataritzakoak.

H) Ciber esklusioa: Eraso logiko baten ondoriozko erreklamazioak: Akats mekaniko edo elektrikoen ondorioz segurtasun-akatsek edo ekipoek eragindako edozein kalte eta/edo kalte mota, barnean direla etenak, gaintentsioak, hornidura elektrikoaren kostu edo itzaltzeak, satelite bidezko sistemen telekomunikazio-sistemen akatsak, sistema edo gailu digitalak, sistema informatikoak edo beste edozein bitarteko digital.

17. klausula. ESTALDURAREN EREMUA

Estatu Espainiarra. Garraioen eta erakusketetako egonaldien kasuan, eremua mundu osoa izango da.

18. klausula. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00 ordutan hasten da eta 2024ko abenduaren 31eko 24:00 ordutan amaitzen da, urte naturaletan luzatu ahal izango dena, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino handiagoa izan.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Luzapena Kontratazio organuak erabakiko du eta kontratugilarentzat nahitanahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, luzapenak barne, Aseguru-etxeak ezin izango du hasieran ezarritako Baldintzak, Bermeak eta Kosteak aldatu, honako salbuespenekin: aseguratutako kopuruen aldaketak eta arriskuaren larritze edo arintzeak, hauek primaren aldaketa proportzionala ekarriko luketelarik.

19. klausula. KUDEAKETA ADMINISTRATIBOKO BALDINTZAK

Esleipendunak behin behineko berme karta luzatuko du, plegu honetan ezarritako baldintzak onartuz. Era berean alta bat gertatzen den unean estaltze agiria emango du berehala.

Kontratua hartzen duen erakundeak Oiartzungo Udalari ezbeharrei buruzko informazioa emango dio, Udalbatzaren beharrei gehien egokitzen den euskarri informatikoan.

20. klausula. ONDASUNAK ETA ASEGURATUTAKO KOPURUAK

Aseguratutako ondasunen guztiko balioa edo balio partziala kontutan hartu gabe, eta beraz proportziozko araua aplikatu gabe, poliza honetarako BALIO TOTALAREN aseguratze-formula ezarriko da, honako kopuruekin:

EDUKITZAILEA:.....43.130.973,35.- euro.

EDUKIA: Makineria eta higigarriak, arte lanak.....3.397.360,60.-euro.

1. ESTALDURAK ETA BERMEEN MUGAK (idatzitako kopuruak eurotan)

a) BERME NAGUSIA/OINARRIZKO ESTALDURA – BERRIAREN BALIOA

Ezbehar bakoitzeko kalte-ordaina gehienez: edukitzaile eta edukiarentzat aseguratutako kopuruen %100a.

Salbuespenak: kalte elektrikoek sortutako ezbeharrak. Hauetarako, honakoa ezartzen da: Lehen Arrisku modalitatea eta ezbehar bakoitzeko 100.000 €ko gehienezko kalte-ordaina.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

b) Berme nagusiari berme osagarriak eta berme gehigarriak – BERRIAREN BALIOA/LEHEN ARRISKUA

Bermeak	Ezbehar bakoitzeko mugak
Aseguratutako ondasunen garraioa, lehen arriskua	60.000 €
Nahitaezko aterarazteak, lehen arriskua	30.000 €
Dokumentu, artxibo, titulu, balio, etb.en birjartzea eta euskarri magnetikoetako datuen berreskuratzea eta berrinprimaketa, lehen arriskua	90.000 €
Plano, eredu, modelo, etb.en birjartzeak, birlortzeak eta transkripzioak, lehen arriskua	90.000 €
Salbamendu, hondakin-kentze eta eraisteen gastuak	Aseguratutako guztizko kopuruaren %10
Lohi-kentzeak eta erauzteen gastuak	Aseguratutako guztizko kopuruaren %10
Itzaltze gastuak	Aseguratutako guztizko kopuruaren %10
Urak sortutako matxuren lokalizazio eta/edo konpontze gastuak, lehen arriskua	30.000 €
Zimentatzeak	Balio galera
Zaintze zerbitzua	8,5 egun jarraian ezbeharra gertatu denetik
Ordain-sari profesionalak	Elkargoek ezarritako minutak
Aseguratuak izendatutako peritoen ordain-sariak	Kalte-ordainaren %3a (frankizia kanpo), gutxienez 60,10 € eta gehienez 60.000 €
Lapurreta eta ebasketa: * Higigarriak, makineria, altzariak, izakinak, salgaiak, eta orokorrean edukiak * Esku-dirua, balioak, tituluak, posta zigiluak, tinbreak, kupoiak, letrak, txekeak, taloiak, eskriturak, eskuizkribuak, planoak eta antzeko objektuak: - Giltzapeturik daudenean - Gotorkutxan daudenean - Higiezinen barruan daudenean - Aseguratutako establezimendutik banketxe bateraino zuzenki garraiatzen ari direnean edo alderantziz * Lapurreta edo lapurreta	Edukiarentzat aseguratutako guztizko kopuruaren %100 3.000 € 10.000 € 1.200 € 12.000 € Edukitzailearentzako aseguratutako

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Bermeak	Ezbehar bakoitzeko mugak
saialdiengatik sortutako kalte materialak	guztizko kopuruaren %100
Kristal, beira, ispilu, errotulu (argidunak edo ez), Lehen Arriskua	6.000 €
Edukitzailean kalte estetikoak, Lehen Arriskua	12.000 €
Errenten galerak, Lehen Arriskua	200.000 €
Lorategi, soropila, zuhaitz, landare, etb. Birjartzea, Lehen Arriskua	30.000 €
Makineriaren konponketa, Lehen Arriskua, mozkinen galera kanporatuta	200.000 €
Udalaren jabegokoak diren ondasunak, hauek hirugarrengoen instalazioetan daudenean	Kapitalaren %100, beti ere hauek aseguratutako kopuruaren barruan daudenean

2. APLIKAGARRIAK DIREN FRANKIZIAK

Ez da frankiziarik ezartzen “berme nagusia/oinarrizko estaldurak” estaltzen dituen arriskuentzat.

Berme nagusiari berme osagarrien eta berme gehigarriengatik estalitako arriskuentzat ezbehar bakoitzeko gehienezko frankizia bakarra ezartzen da, 300 €takoa, honako salbuespenekin:

- Kristal, beira, ispilu, errotuluen (argidunak edo ez) haustura. Kasu honetan, frankizia ezbehar bakoitzeko 90 eurotakoa izango da, gehienez ere.

- Makineriaren matxuren estaldura. Kasu honetan, frankizia ezbehar bakoitzeko 2.000 eurotakoa izango da, gehienez ere.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

OIARTZUNGO
UDALA

EKIPO ELEKTRONIKOEN ASEGURUA

Poliza honetako Baldintza Partikularrak ondoren zehazten dira. Hauen kontsiderazioa estaldura minimoena da.

1. klausula. ASEGURUAREN XEDEA

Aseguru-hartzaileak ekipo elektronikoak estaliko dituen aseguruaren kontratazioa da. Estaldura honek baldintza teknikoen plegu honetan jasotako arriskuen gauzatzea bereganatuko du.

2. klausula. ASEGURUAREN HARTZAILEA

Aseguruaren hartzailea:	OIARTZUNGO Udala
IFK:	P2006800C
Helbidea:	Done Eztebe plaza 1 20180 -OIARTZUN- Gipuzkoa

3. klausula. ARRISKUAREN DATUAK

Arriskua: Bakarra

4. klausula. ASEGURATUAK

Aseguru hartzailea

5. klausula. ASEGURATUTAKO ARRISKUAREN EZAUGARRI OROKORRAK

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA: UDALA

Jarduera: UDALA

6. klausula. DEFINIZIOAK

Poliza honen eraginetarako, kontzeptu hauek honela ulertuko dira:

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- ASEGURATZAILEA: Poliza honen erakunde (aseguru-etxe) jaulkitzailea da, aseguratzaile gisa, prima kobratuz, kontratu honen xede diren arriskuen estaldura bere gain hartzen du, polizan ezarritako baldintzen arabera. Erakunde hori Espainiako Erresumako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren gainbegiratzepean dago aseguratze jardueran, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren eta Pentsio Funtsen bitartez.

- ASEGURUAREN HARTZAILEA: Kontratu hau aseguru-etxearekin sinatzen duen pertsona. Berari dagozkio kontratutik eratorritako betebeharrak eta eginbideak, Aseguratuari dagozkionak salbu.

- ASEGURATUA: Berari dagozkio kontratutik eratorritako eskubideak.

- ONURADUNA: Aseguratuak izendatu duena, ezbeharra gertatuz gero, polizaren arabera dagokion kalte-ordaina jasotzeko.

- POLIZA: Agiri honetan formalizatzen da aseguruaren kontratua eta osagai hauek ditu: baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria, baldintza teknikoen agiri hau eta kontratu honek dirauen bitartean aseguru honen babesean alderdiek sinatutako aldaketa, eranskin eta gainerako agiriak.

- PRIMA: Aseguruaren prezioa; ordainagirian sartuko dira era berean Aseguruaren Hartzaileari legez ezar dakizkiokeen zerga eta errekarguak, edozelan ere esleipendunak eskainitako prezioan sartuak egongo direnak, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian aurreikusitakoaren arabera.

- ADOSTUTAKO BALIOA: Aseguratutako interesari polizan ezarritako balioa, Aseguratzaileak eta Aseguratuak espreski onartutakoa, eta kalte-ordainaren kalkulurako kontutan hartu beharko dena.

- KOPURU ASEGURATUA: Polizaren Baldintza Partikularretan ezarritako kopurua, edo, kasua balitz, Aseguru-etxeak egindako eskaintza, Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzeko kalte-ordainetan eman behar duen gehieneko kopurua ezartzen duena.

  Kopuru hori ezberdina izan liteke hitzartu den aseguru motaren arabera. Hona hemen motak:

  - BALIO TOTALEKO ASEGURUA: Aseguru mota honek ondasunen balio osoa eta erreala bermatzen du. Ezbehar bat gertatzean, aseguraturiko kopurua ondasunen balio erreala baino apalagoa balitz, kalte-ordaina zehazteko orduan, erregela proportzionala aplikatuko da.

  - BALIO PARTZIALEKO ASEGURUA: Aseguru mota honek portzentaje bateraino bermatzen du. Polizaren Baldintza Partikularretan zehazten da ehunekoa, aseguratutako ondasunen balio oso eta errealtzat adierazitako kopuru osoaren gainean. Ezbeharra gertatuz gero, kalteak bermatutako portzentaje horretaraino ordainduko dira gehienez, betiere aseguratutako ondasunen balio erreal eta osoak polizan adierazitako kopurua gainditzen ez duenean. Kopuru

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

hori gainditukо balu, kalte-ordaina zehazterakoan, erregela proportzionala aplikatuko da.

- KALTE-ORDAIN MUGATUKO ASEGURUA Aseguru mota honek arriskua duten ondasunen balio osoa bermatzen du, aseguratzailearen erantzukizuna polizaren baldintza partikularretan zehazten den kopuru finkora mugatuz. Ezbehar bat gertatzean, aseguraturiko kopurua ondasunen balio erreala baino apalagoa balitz, erregela proportzionala aplikatuko da.
- LEHEN ARRISKUKO ASEGURUA: Aseguru mota honetan kopuru jakin bateraino bermatzen da arriskua, aseguratutako ondasunen balio erreala eta osoa alde batera utzita, eta, beraz, infra-asegurutik eratortzen den erregela proportzionala aplikatu gabe.

- FRANKIZIA: Ezbehar bakoitzean dagokion kalteordainatik kenduko den kopurua, portzentajea edo denbora epea, espreski adostutakoa.

- EZBEHARRA: Egitate bat da, zeinen ondorio ekonomiko kaltegarriak polizak estaltzen dituen. Gertaera beretik datozen kalteek ezbehar bakarra osatzen dute.

- KALTE MATERIALAK: Bermatutako ondasunen hondatzea edo suntsitzea, polizan deskribatutako lekuan.

- BERRIAREN BALIOA EDO BERRIA JARTZEA: Kaltetutako ondasuna konpontzearen, berreraikitzearen edo berria jartzearen kostua, ezbeharraren lekuan, horretarako material berriak erabiliz. Berritzearen tamaina, mota eta kalitatea kaltetutako ondasunaren antzekoak izango dira eta ohiko garraioko gastuak, lizentzia-, administrazio baimen-, profesionalen zerbitzu-sari eta kostu horretan legez nahitaez sartzen diren beste gastuak barneratuko dira.

- BALIO ERREALA: Kaltetutako ondasuna konpontzearen, berreraikitzearen edo berria jartzearen kostua, ezbeharraren lekuan, horretarako material berriak erabiliz. Berritzearen tamaina, mota eta kalitatea kaltetutako ondasunaren antzekoak izango dira eta ohiko garraioko gastuak, lizentzia-, administrazio baimen-, profesionalen zerbitzu-sari eta kostu horretan legez nahitaez sartzen diren beste gastuak barneratuko dira, ezbeharra gertatu aurretxoan erabilera, antzinatasun, zaharkitze eta ondasunaren egoeragatik ondasunak izandako balio-galera kenduz.

- LAPURRETA: Lapurretatzat hartzen da bermaturiko ondasunak hirugarrengoek legez kanpo bereganatzea, jabearen gogoz kontra; horretarako indarra erabiliz gauzakietan edo haiek dauden lokaletan, eta larderia edo indarkeria erabiliz gauzaki haiek zaintzen edo daramatzaten pertsonen aurka.

- EBASKETA: Ebasketa da bermaturiko ondasunak hirugarrengoek legez kanpo bereganatzea, jabearen gogoz kontra; horretarako indarrik erabili gabe gauzakietan edota larderia edo indarkeria erabili gabe pertsonen aurka.

- EKIPO ELEKTRONIKOA: Edozein gailu, edo gailu multzo, zeinen sistema eta funtzionamendua gailu elektronikoetan oinarritzen den, eta zeinek, aldi berean,

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

zuzenean edo zeharka beste aparatu edo makina elektriko edo mekanikori eragin diezaiokeen.

7. klausula. ASEGURATURIKO ONDASUNAK

Estaldura honen xedeetarako ekipo elektronikoa zera izango da; ekipo elektronikoek berez osatzen duten multzoa, hala nola zerbitzariak, ordenagailuak, haien gehigarriak eta instalazio osagarriak, bazterketarik gabe, tresna periferikoak eta fotokopiagailuak, faxak, korrontearen egonkorgailuak, aginte koadroak eta bestelako antzeko aparatuak, Aseguru-hartzailearen edo/eta Aseguratuaren jabegokoak. Aipatu ekipoak berdin egon daitezke jabetzan, arrendamenduan edo udal erabilerako eraikinetan edo menpeko Erakunde Publikoetan aipatu ekipoen multzoak berezko jarduerak betetzen dituenean, lanean daudenean, pausatuta daudenean edo konponketarako, berrikuspenerako edo beste edozein justifikatutako arrazoi batengatik desmontatuta daudenean.

8. klausula. MANTENIMENDU ZERBITZUA

Poliza indarrean dagoen bitartean, Hartzailea edo/eta Aseguratua poliza honen bidez aseguraturiko ekipoen mantenimendu zerbitzua egunean izatera konprometitzen da. Zerbitzu honen bidez erregurlartasunez dagokion tresnen mantentze-lana eta zerbitzu probak zaintzeari ekingo zaio. Mantenimendua Udalaren beraren zerbitzu teknikoen bidez egingo da zein ekipoaren fabrikatzaile edo/eta hornitzailearen bidez.

9. klausula. ESTALITAKO ARRISKUAK

A) Berme nagusia

Berme nagusiak estalitako arriskuak

Plegu hauetan jasotakoaz gain, komenigarria ikusten den hartan zabalduko da, ondorengoak sortutako kalte eta/edo galerak:

a) Suteak edo/eta hauek itzaltzeko lanak.

b) Leherketa edo/eta inplosioak, ondoren sutea sortzen dutenean edo ez.

c) Tximista, ondoren sutea sortzen duenean edo ez.

d) Korronte elektrikoaren eraginak, hala nola zirkuitulaburrak, tentsio gehikuntzak, isolamendu gabeziak, arku voltaikoak, fenomeno elektromagnetikoak, indukzio elektrostatikoa, etb.

e) Eraikuntza eta kalkulu akatsak, galdaketa eta materialetan akatsak.

f) Berezko errekuntza, beti ere sutea baldin badago edozein delarik sortze-arrazoia.

g) Gauzakien erorketa.

h) Ekaitza, gainezkatze, uholde, euri edo kazkabar, bai eta haien ondorioak

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

i) Hodien edo/eta biltegien hausturagatik isuritako ura.

j) Lapurreta edo/eta arpilatzea, bai eta saialdiak ere, nahiz eta berezko ekintza ez bete.

k) Ebasketa.

l) Instalazioari loturiko langileriaren trebetasun eza, zabarkeria, ardura falta edo/eta herra (beti ere izaera giza-politikoa ez duenean).

m) Hirugarrengoen asmo gaiztoz egindako ekintzak, izaera giza-politikoa ez dutenean.

n) Material, eraikuntza eta muntai akatsak, beti ere bermeak barneratzen ez dituenean.

o) Suteen itzaltzeetarako instalazio automatikoen istripuzko isurketa edo jarioek sortutako kalte materialak.

p) Polizaren atalen batean espresuki kanporatua izan ez den beste edozein arrazoi.

B) Berme nagusiari berme osagarriak

1. Datu-prozesaketa ekipamenduetarako datuen birlorpena

Aseguru-etxeak, Lehen Arrisku moduan eta ezbehar bakoitzeko 60.100 euroko mugarekin ordainduko ditu aseguratuta datuen euskarri magnetikoetan dagoen informazioa birlortzeko eta berrinprimatzeko beharrezko gastuak, beti ere aipatu euskarriek estaldura honen bidez ordaingarria den kalte edo galera jasan badute.

2. Datuen kanpo-eramaileak

Bermatutako ekipoaren zerbitzura dauden datuen kanpo-eramaileek pairatzen dituzten kalte edo/eta galerak Lehen Arrisku moduan bermatuko dira (hala nola disko magnetikoak, etb.), bai eta bertan dauden datuen berreskuraketa ere, galera edo kaltea polizaren Berme Nagusiak jasotzen duen ezbehar batengatik gertatu bada, ezbehar bakoitzeko 60.100 eurotako mugarekin.

Ordaintzeko betebehar honek zera jasotzen du:

a) Pairatutako kalteen konponketa, edo datuen kanpo-eramailearen ordezkapena.

b) Kanpo-eramailean jasotako datu eta informazioen erreprodukzioaren kostua, ezbeharraren ondorioz galdutakoak direnean.

Epigrafe honetako bermeak ez dira aplikatzen honako galera edo/eta kalteentzat:

a) Programazio eza, zulaketa, klasifikazio, txertatze, informazioaren istripuzko deuseztatze edo baztertzeak sortutakoak.

b) Erabiltze-gabetzeak, lanen kentze edo eteteak, kalteak, mozkinetan galerak edo edozein motatako zigorrak sorturikoak.

3. Aire-girotze instalazioaren ondorioz eragindako kalteak

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Barneratuta gelditzen dira, Lehen Arrisku moduan eta ezbehar bakoitzeko 60.100 eurotako mugarekin, aseguratutako ondasunen kalteak, aire-girotze instalazioan gertatutako matxura edo akatsak eragindakoak direnean.

Bete beharrekoa izango da aseguratutako ondasunak dauden lekuak tenperaturaren eta aire-hezetasunaren zainketarako argiztatze seinaleak dituen aire-girotze instalazioa edukitzea.

10. klausula. ZATI EZ ASEGURAGARRIAK

Aseguru honek ez ditu estaliko honako ondasunok:

Bonbillak, balbulak, hodiak, uhalak, bandak, eskuilak, junturak, sokak eta fusibleak. Halere, ezbeharra ordaingarria baldin bada eta aipatu pieza edo osagarria ezbehar horretan kaltetutako beste pieza gehiagoren artean bat baldin bada, kalte-ordainean gehitu egingo da honen kostua.

11. klausula. ASEGURATUAREN PERITUEN ZERBITZU-SARIAK

Aseguratzaileak Aseguratuak izendatutako perituaren sari-ordainak ordainduko ditu, bai hondamenezko edo/eta ezohiko sorrera izateagatik Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordaindu behar dituenean bai eta polizari berez egokitzeagatik Aseguru-etxeak ordaindu behar dituenean.

Perituaren sari-ordaina kalte-ordainaren %3a izango da (frankizia kanpo) ezbehar bakoitzeko 60,10 euroko gutxienekoarekin eta 18.000 euroko gehienekoarekin. Kopuru horri dagozkion legezko zergak gehituko zaizkio.

Aseguru-etxeak zuzenean ordainduko dizkio Aseguratuak izendatutako peritoari aipatu sari-ordainak eta dagokion peritu-aktan jasoko da gertakari hau.

12. klausula. HITZARMENAK ETA HITZARTZEAK

Aseguru honetan babesturik gelditzen dira ere aseguratutako ondasunak pairatu ahal izango dituzten kalteak, lekualdatze, berrantolatze, garbitze edo beste mugimenduak dirauten bitartean, beti ere kalteak poliza honetan kanporatua ez dagoen istripu batengatik edo aurre ikusi ezin den arrazoi batengatik gertatzen direnean.

13. klausula. ESTALDURATIK KANPO GERATZEN DIREN ARRISKUAK

Aseguruaren estalduratik at gelditzen dira honakook sortutako kalte edo galerak:

a) Aseguru-hartzailearen edo/eta Aseguratuaren fede txarra, dolua edo kulpa larria.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

b) Gatazka armatuak (gerra deklarazio ofiziala egon ala ez), iraultza, matxinada, albaramendu, terrorismo, eta herri errebolta eta nahasmendu, konfiskazio, zeinahi gobernuk edo tokiko agintaritza edo agintaritza publikok egindako nazionalizazio edo desjabetzeak, eskubidez edo egitatez.

c) Bake garaian Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek egindako jarduketa edo egitateak.

d) Sumendi erupzio, urakan, ekaitz, lurrikara, luizi, lur hondoratze edo lur mugimendu, eta oro har, beste edozein gertaera atmosferiko sismiko edo geologiko, Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako kasuak izan ezik.

e) Izarrarteko gorputzen edo aerolitoen erortzea.

f) Erreakzio edo erradiazio nuklear edo kutsadura erradiaktiboa.

g) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen dituen egitateak, eta Botere Publikoak "Hondamendi edo Zoritxar Nazional" kalifikaturikoak.

h) Ezbehar hauen kasuan: ezohikoak edo hondamendi izaera badute ere, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak aseguratuaren eskubidea onartzen ez duenean, gertaera unean Aseguratuak Araudian edo Xedapen Osagarrietan ezarritako indarreko arauak ez betetzeagatik, eta halaber, aipatutako erakundeak ezarritako gabezia aldian gertatutakoak direnean.

i) Ornogabeak, larbak eta karraskariak.

j) Aseguratutako enpresarentzat lanean ari direnek borondatezko lan etenaldia.

k) Aseguratutako ekipoen funtzionamendurako garrantzi gutxiko ondorioak sortzen dituen edozein arrazoi, ondorio hauek itxura estetikoa eta kanpo akaberak kaskarragotzea suposatzen dutenean.

l) Enpresaren berezko jardueraren ondorioz askatzen diren lurrun, gas edo/eta keek sortutako efektuak.

14. klausula. OHI KANPOKO ARRISKUEN ESTALDURA

Ohi kanpoko arriskuen estaldura Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren bitartez bermatua geratzen da, otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera, eta indarreko gainerako lege xedapenen arabera.

15. klausula. ESKURATZE BERRIAK

Aseguruaren indarraldian Aseguratuak bereganatzen duen edozein egoera edo ondasun berri automatikoki estalita geratuko da. Bereganaketa hauek polizaren urteko epemugan erregularizatuko dira.

16. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN ESTALDURA AUTOMATIKOA

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Honako aseguruak aseguratutako kopuruaren gehieneko %20eko gehikuntza automatikoa bermatzen du, beti ere gehikuntza arrisku berrien barneraketari edota jadanik aseguratutako arriskuaren izaeraren aldaketari ez dagokionean. Halaber, aipatu portzentajeak, inflazioak eragindako gehikuntzak barneratuko ditu.

17. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN GAURKOTZEA

Aseguratutako kopuruak aseguru kontratuaren epean gertatzen diren alta eta bajak oinarritzat hartuz eguneratuko dira, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agirian zahaztutakoari jarraiki.

18. klausula. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOEN KONPENTSAZIOA

Berariaz adosten da ezbeharra gertatzen denean aseguraturiko kopurua gehiegia balitz (kontusail batean edo gehiagotan) soberakin hori bideratu ahal izango dela aski hornitua ez dagoen aseguratutako kapitala ez duten aseguratutako ondasunei laguntzeko.

19. klausula. BERRIAREKIN ORDEZKATZEKO BERMEA

Ezarritako aseguratutako kopuruak egungo kostua duten bermatutako ondasunen birjartze-balioenak dira. Beraz, kalte-ordaina kaltetutako ondasuna egun horretan berri batengatik ordezteak duen kostua izango da, ondasun berri hau berdina edo antzekoa izanik eta zaharraren funtzio berdina egiteko gai izanik, ahalbide eta kalitate berdinarekin. Ez da aintzat hartuko antzinatasunagatik edo erabileragatik sortutako balio-galera eta kostuari garraio eta muntatze gastuak, eta aduana eskubideak, baleude, erantsiko zaizkio.

20. klausula. KALTEEN BALIOESPENA

Ezbehar kasuan, Aseguratzaileak kaltetutako ondasunaren konponketaren edota ordezkapen kostua ordainduko dio Aseguratuari, antzinatasuna, kontserbazio egoera edo zaharkitzapen kontzeptuengatik kendura egin gabe.

21. klausula. KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratuaren iraupena 2023ko urtarrilaren 1eko 00:00 ordutan hasten da eta 2024ko abenduaren 31eko 24:00 ordutan amaitzen da, urte naturaletan luzatu ahal izango dena, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du lau urte baino handiagoa izan.

Luzapena Kontratazio organuak erabakiko du eta kontratugilarentzat nahitanahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, luzapenak barne, Aseguru-etxeak ezin izango du hasieran ezarritako Baldintzak, Bermeak eta Kosteak aldatu, honako salbuespenekin: aseguratutako kopuruen aldaketak eta arriskuaren larritze edo arintzeak, hauek primaren aldaketa proportzionala ekarriko luketeelarik.

22. klausula. KUDEAKETA ADMINISTRATIBOKO BALDINTZAK

Esleipendunak behin behineko berme karta luzatuko du, plegu honetan ezarritako baldintzak onartuz. Era berean alta bat gertatzen den unean estaltze agiria emango du berehala.

Kontratua hartzen duen erakundeak Oiartzungo Udalari ezbeharrei buruzko informazioa emango dio, Udalbatzaren beharrei gehien egokitzen den euskarri informatikoan.

23. klausula. ASEGURATUTAKO KAPITALA

Aseguratutako ondasunen guztiko balioa edo balio partziala kontutan hartu gabe, eta beraz proportziozko araua aplikatu gabe, poliza honetarako BALIO TOTALAREN aseguratze-formula ezarriko da, ordenagailu eta beste ekipo elektronikoentzat 636.500 euroko kapital orokorrarekin.

24. klausula. FRANKIZIA

Ezbehar bakoitzeko gehienezko frankizia bakarra ezarriko da, 200 eurotakoa.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

I ERANSKINA – ESTALDURAN SARTUTAKO ONDASUNEN ZERRENDA ETA BALORAZIOA

		continente (€)	contenido (€)		m2	€/m2
	ERAIKUNTZAK					
1	Casa Consistorial	3.385.273,02	152.479,82		2267	1500
2	Oficinas Técnicas (Urbanismo)	1.103.899,98	9.082,05		388	
3	Harrigain haurtzaindegia	379.932,95				
4	Oiartzun irratia	54.483,74				
5	Biblioteca y capilla	1.282.647,67	202.241,97		1128	
6	Urinarios públicos	33.904,72				
7	Gaztetxe	359.279,02	4.576,36			
8	Casa Landetxe (edificio)	701.012,00	9.921,65		676	
9	Local Comercial (Gazte informazio bulegoa)	62.220,00			66	
10	Lavadero público	88.363,81			72	
11	Local	59.057,15				
12	Local	94.315,15				
13	Local	49.790,52				
14	Local	78.325,65				
15	Local	57.948,76			92	
16	Local Comercial	104.499,20				
17	Piscinas Municipales. Urbanización	573.389,45	31.241,22			
18	Piscinas Municipales. Locales + Aseos, vestuarios,…	512.062,30				
19	Cementerio Municipal	623.249,44				
20	Viviendas casa Agerrealde	939.625,70				
21	Planta baja casa Bastero-txiki	98.161,38			78,75	
22	viviendas caserio Ayerdi	202.752,17				
23	Local Comercial (Iturriotz berria)	121.199,38			137,5	
24	Casa Torre	586.352,98			434,82	
25	Pabellón servicios Municipales	342.210,00				
26	Pabellón Servicios Municipales	699.975,00	127.806,10			
27	Iturburu haurtzaindegia	376.819,88	10.858,27			
28	Local	21.517,75				
29	Local	193.919,00				
30	Arritxulo mendi aterpea	1.263.203,81	105.266,99		1096	
31	Local (Entomologia Elkartea)	93.733,39				
32	Local (Luberri)	82.168,77				
33	zona deportiva	930.424,40				

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

34	zona deportiva (construcciones)	623.249,44				
35	Museo Instrumentos musicales	260.207,15	17.753,91			
36	Local Auzokalte	96.014,79				
37	Caserío Penadegi	152.010,72				
38	Urkabe baita	986.875,57			695	
39	Arizmendi enea	897.853,27	48.035,91			
40	Fermiñene	928.392,92			804,5	
41	Local (Girizia)	104.192,58				
42	Local	19.703,00				
43	Local (Bake Epaitegia)	104.192,58				
44	Matadero Auztegi	85.261,10				
45	Bizardia	254.333,58			288,54	
46	Haizegain	503.982,00				
47	Haizegain	321.055,20				
48	Urinarios públicos	33.904,72				
49	Tanatorio municipal	501.908,00	107.848,00			
50	Local nº 1	57.876,25				
51	Local nº 2	55.350,85				
52	Local nº 3	57.828,36				
53	Local nº 4	43.330,68				
54	Local nº 5	61.202,89				
55	Local nº 6	55.248,33				
56	Local nº 9	124.440,00	20.000,00			
57	Borda de unai leku	51.850,00				
58	Borda aritxulegi	41.480,00				
59	Borda Oianleku	41.480,00				
60	Anbulategia	1.037.000,00				
61	Elorsoro kiroldegiko aparkalekua	57.491,28				
62	San Juan kalea, Manuel Lekuona eta Aialde kaleko piboteak		80.000,00			
63	Elorsoro kiroldegia	4.912.791,23	1.710.013,00			
64	Local Ugaldetxo	136.943,43				
65	Edificio multiusos (kultur etxea)	5.536.337,80				
66	Komun autobarbigarria	44.407,00				
	FRONTOIAK					
67	Frontón Madalensoro + lokalak	3.017.757,11	35.626,30			
68	Frontón municipal	233.719,06				
69	Frontón municipal	342.395,51			400	

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

70	Frontón municipal	104.207,09					
71	Frontón municipal	71.050,06					
72	Frontón municipal	284.965,95			250		
73	Frontón municipal	71.050,06					
	ESKOLAK						
74	Ugaldetxo - viviendas (2) (antiguas escuelas)	141.032,00					
75	Ugaldetxo - locales (2) (antiguas escuelas)	141.032,00					
76	Altzibar (escuela de adultos)	226.469,39					
77	Arragua - viviendas (antiguas escuelas)	260.207,15					
78	Arragua - CIP	188.734,00					
79	Elizalde (HE, LH)	2.523.290,62					
	APARKALEKU ESTALIAK						
80	Landetxe - sotano 2º + lokalak	1.525.411,45	936,90				
81	Madalensoro (aparkaleku librea)	1.244.400,00					
82	Madalensoro (alokairuan)	777.750,00					
83	Euskal Herria	696.645,19					
	ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK - UR ZERBITZUA	continente	contenido				
84	Captación y decantador de Epele	226.876,93					
85	Depósito de Boluntxo	26.132,40					
86	Depuradora de Pullegi	173.499,43					
87	Captación de Portuberri	60.975,60					
88	Depuradora de Portuberri (Penadegi)	435.540,00	259.250,00				
89	Depósito de Arrieta	106.383,76					
90	Depósito de Bordaxar	324.060,43					
91	Depóstio de Urkabe	20.457,94					
92	Depósito de Gurutze	169.394,99					
93	Depósito de Altzi	13.066,20	414,80				
94	Depósito de Altamira	30.278,33					
95	Depósito de Lanbarren	155.550,00	62.220,00				
96	Edificio de bombas de Lanbarren 1 (beheko ur hornidura eta sute aurkakoa)		700.000,00	200.000,00			
97	Depósito de Argiñene	94.108,79					
98	Captación y tubería de Axerigorri	1.037,00					
99	Chabola de cloración y arqueta de Axerigorri	3.111,00					

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

100	Chabolas de cloración de Telleri	10.370,00					
101	Captación y chabola de Aristiburu (kaptazioa ez da erabiltzen)		213.519,34				
102	Pequeño depósito de Gurutze (Arpidetxiki)	18.821,55					
103	Chabola de bombas de Agroaldea (bi eraikin bonbeo eta depositua)		41.480,00	31.110,00			
104	Captación y depósito de Karrika	181.475,00					
105	Chabola de cloración de Estrataburu	10.370,00					
106	Arqueta depósito de Mikelentxone	10.370,00					
107	Captación, canal y central de Portuberri	162.601,60	31.110,00				
108	Edificio bombas Lanbarren 2 (goiko sute aurkako sistema)		435.540,00	130.000,00			
109	Depósito Frailen bidea 12	20.000,00					
	MARKESINAK						
110	Elizalde (2)	12.444,00					
111	Pikagarai	6.222,00					
112	Pikabene	6.222,00					
113	Karrika	6.222,00					
114	Intxixu	6.222,00					
115	Mamut(4 + Urkiakoako)	31.110,00					
116	Arragua (4)	24.888,00					
117	Orereta bidea (2)	12.444,00					
118	Gurutze	6.222,00					
119	Santusene	6.222,00					
120	Kale berria (3)	18.666,00					
121	Iturriotz (2)	12.444,00					
122	Ibarre	6.222,00					
123	Lanbarrren (2)	12.444,00					
124	Lintzirin (3)	12.444,00					
125	Ergoien	6.222,00					
	APORTAZIO GUNEAK / ZABOR ETXOLAK						
126	Talaia	28.881,49					
127	Zerradi	16.436,45					
128	Iradi	8.386,22					
129	Iturriotz	12.865,86					
130	Altzibar	16.636,59					
131	Pagoaldea	13.891,03					
132	Elizalde	20.069,28					

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

133	Gurutze	16.081,18					
134	Maldaburu	10.553,05					
135	Oliden	11.257,67					
	ANTENAK / ANTENAS						
136	Urkabe mendiko torreta en recinto cerrado: antena repetidora (talki guardia municipal, talki brigada), antenas de telecomunicaciones) + Dentro de la caseta: rack telecomunicaciones, inversor y equipos electrónicos	10.370,00	46.665,00				
137	Arritxulo antena + switch dentro del albergue		466,65				
138	Penadegi 3 antenas de telecomunicación, 2 a la intemperie y 1 en recinto cerrado dentro de la depuradora + switch dentro de la depuradora		4.148,00				
139	Pagolarreko torreta y cuadro eléctrico en recinto cerrado + SAI, cuadro eléctrico, equipo electrónico a la intemperie	16.592,00	7.259,00				
140	Lanbarrengo torreta + antena a la intemperie, en recinto cerrado rack telecomunicaciones + SAI + electrónica de fibra óptica + switch, subterráneo cable fibra óptica		4.666,50				
141	Arrietako torreta + antenas en recinto cerrado + cámara videovigilnacia + rack telecomunicaciones + SAI	10.370,00	4977,60				
142	Zaria mendiko antena, a la intemperie + switch + SAI		3.318,40				
143	Arditurri antena + switch + rack de telecomunicaciones dentro del museo		2194,00				
144	Pullegi antena + switch		458,00				
145	Talaia garbigune antena + switch + rack telecomunicaciones		763,00				
146	Tanatorio antena + switch + rack telecomunicaciones		763,00				
147	Altzibar antena + switch		458,00				
148	Karrika antena + switch		458,00				
149	Arragua antena + switch		458,00				
150	Lintzirin antena + switch		458,00				
151	Piscinas verano antena + switch + rack telecomunicaciones		763,00				
152	Madalensoro antena + switch + rack telecomunicaciones		763,00				
153	Ugaldetxo campo de futbol antena + switch + rack telecomunicaciones		763,00				
	BIDEOZAINTZA / VIDEOVIGILANCIA						
154	Talaia garbigune 3 camaras videovigilancia		1.032,00				
155	Tanatorio antena 4 camaras videovigilancia		1.376,00				
156	Karrika 2 camaras videovigilancia		688,00				
157	Piscinas verano 1 camara videovigilancia		344,00				
158	Zerradi 3 camaras videovigilancia		1.032,00				

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

159	Landetxe eraikin berria 12 camaras videovigilancia		4.128,00				
160	Donibane kalea 2 camaras videovigilancia		688,00				
161	Euskal Herria plaza parking 3 camaras videovigilancia		1.032,00				
	OBRAS DE ARTE						
162	Cuadro al óleo, Iturriotz		1.557,57				
163	Cuadro al óleo, paisaje		9.851,50				
164	Cuadro al óleo, Arditurri		1.557,57				
165	Cuadro al óleo, Sanixtebanes 1975		1.557,57				
166	Cuadro al óleo, Iglesia de Oiartzun		3.111,00				
167	Cuadro al óleo, paisaje		1.557,57				
168	Reloj pared con péndulo, caja madera		279,99				
169	Cuadro al óleo de Manuel Lekuona, 1300x900		3.733,20				
170	Cuadro al óleo, Bodegón, 2600x1500 mm		6.222,00				
171	Cuadro al óleo, Personas de laboreo, 1900x1300		3.733,20				
172	Maqueta del municipio de Oiartzun y presa de Añarbe			6.222,00			
173	Motivo escultórica en roble Intxixubaratz		4.666,50				
174	Reloj solar dos capas, de piedra		1.244,40				
175	Piedra para moler mineral		1.244,40				
176	Pintura al óleo Manuel Lekuona, 500x600		1.244,40				
177	Retablo San Juan, madera policromada		186.974,86				
178	Losa sepultura "Harri", labrada		1.244,40				
179	Piedra molino tipo rotativo, 800x200 mm		1.037,00				
180	Lápida mortuoria en piedra, "Hilarria"		1.037,00				
181	Arco de piedra, en inscripción. Año 1700		1.244,40				
182	Cristo en madera policromada		2.592,50				
183	Reloj pared madera, fondos nacarados		622,20				
184	Obra escultórica bretona		311,10				
185	Escultura en piedra de niño		248,88				
186	Tapiz bretón		497,76				
187	Pintura al óleo		829,60				
188	Pintura al óleo, Ugaldetxo zaharra		829,60				
189	Estatua sedente, Sebastián Mendiburu		12.444,00				
190	Monumento de piedra, Cruz de Altzibar		3.733,20				
191	Monumento de piedra, Cruz de Iturriotz		3.733,20				
192	Escultura . Errebotalari		24.369,50				
193	Mural Nestor Basterretxea		18.479,34				
194	Escultura Intxixu		4.666,50				

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

195	3 cuadros al óleo de Goenaga "Arditurri"		3.111,00				
196	Cuadro al óleo de Antonio Valverde Aialde "Ergoien"		15.555,00				
197	Cuadro al óleo de Isasa "Txondorra"		6.222,00				
198	Cuadro al óleo de Isasa "Itxi gabeko zauriak"		6.222,00				
199	Escultura "Txalaparta", Juan Gorriti		1.555,50				
200	Escultura "Ataka". Juan Gorriti		1555,5				
201	Escultura "Sutar" Anton Mendizabal		37.332,00				
202	Arozena Antzerki Fondoa (colección de libros)		34.221,00				
203	Juan Mari Lekuona Fondoa (colección libros)		51.850,00				
204	Manuel Lekuona Fondoa (coloección libros)		51.850,00				
	MULTIDEPORTE + SKATE PARK						
	Pikagarai	40.000,00					
	Arragua	40.000,00					
	Skate park	90.000,00					
	JOLAS PARKEAK + BIOSALUDABLEAK						
	Bizardia plaza						
	Euskal herria plaza						
	erriberene						
	elizalde eskola						
	kiroldegia						
	elorrondo 10						
	haurtzaro ikastola (2)						
	Maria garaiar haurtzaindegia						
	donostia plaza						
	karaez kalea						
	zilarkale						
	pikabene						

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

	kalexa plaza						
	lartzabal etxadia						
	aldeguna						
	larrezabaleta gaina						
	beheko plaza, sorua, iturriotz						
	bengoetxea plaza						
	agerrealde etxadia						
	kale berria						
	klarene						
	olalde						
	karrika kopetatiba						
	ergoien						
	biosaludableak		25.000,00				
	TOTALES						
		49.618.100,56	3.743.076,00				

<u>Espresuki adierazten da zerrendatutako higiezin hauetako batzuetan eraikinaren zati batzuk edo egituraren elementu batzuk egurrrezkoak izan daitezkeela.</u>

Era beran, bere jabetzakoak ez izan arren Udalak errenta erregimenean erabiltzen dituen higiezinetan egindako egokitze lanak aseguruan sartzearren, ondorengo higiezinak zerrendatzen dira :

- Lizarraga baserriko lursaila (Elorsoro kiroldegiko aparkalekua)
- Etxeberri baserriko lursaila (Karrikako ur-biltegia eta dekantagailua)

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

II. ERANSKINA

EZBEHARREN KUDEAKETA

Aseguru konpainia esleipendunak ezbeharren protokolo hau onartuko du:

1. PROTOKOLOAREN XEDEA

Ezbeharrak kudeatzeko protokolo honen helburua da asegurudunen kontra egindako gizarte erantzukizuneko erreklamazioak edo gorabeherak izapidetzeko prozedurak eta zirkuituak ezartzea, OIARTZUNGO UDAL TXIT GORENAK ETA ASEGURU KONPAINIA ESLEIPENDUNAK izenpetutako erantzukizun zibileko eta ondare erantzukizuneko polizaren babesean.

Gorabehera eta erreklamazio guztiek protokolo hau bete beharko dute, edozer eratan aurkeztu edo jakitera eman direla ere. Honako hauek izan daitezke, besteak beste:

1. Pertsona fisikoei edota juridikoei zuzenean egindako erreklamazioak edo kexak, polizako baldintza partikularren atalean adierazitakoak.
2. Oiartzungo Udal Txit Gorenaren aurrean entitate moduan aurkeztutako erreklamazioak.
3. Zuzenean aseguru konpainia esleipendunari aurkeztutako erreklamazioak.
4. Justizia auzitegien aurrean gauzatutako ekintzak, dagokien jurisdikzioa gorabehera.

2. EZBEHARREN BERRI EMATEKO PROZEDURA ETA HAIEK IZAPIDETZEKO PRINTZIPIO GIDARIAK

2.1. ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENAK

Oiartzungo Udal Txit Gorenak (aurrerantzean, aseguruduna) BIKABI ARTEKARITZA SLri (aurrerantzean, BIKABI) jakinaraziko dizkio frankizia gainditzen duten ala gainditzen ez duten erreklamazio guztiak, protokolo honetako 1. ataleko 1., 2. eta 4. puntuetan adierazi moduan.

Xede horietarako, erreklamazioa honela definitzen da: kalteak jasan dituen hirugarren batek asegurudunari edo aseguratzaileari idatziz egindako lehen jakinarazpena, erreklamatzeko asmoa duela adierazteko, edo jakinarazteko edozein administrazio ekintza edo ikerkuntza ofizial egiteko asmoa duela, kalte bat eragin duen eta poliza honen pean kalte-ordaina merezi dezakeen ekintza edo hutsegite bat egin duelako asegurudunak.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

2.2. ASEGURATZAILEA ONDARE ERANTZUKIZUNEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAN AGERTZEA

Ondarea erreklamatzeko administrazio prozedura bat abian jartzen denean, dela asegurudunak ofizioz, dela hirugarrenak erreklamazioa eginda, asegurudunak aseguru konpainia esleipendunari jakinarazi beharko dio berehala, BIKABIren bidez, aseguratzaileak prozedura bideratzeko egintzetan parte hartzeko eskubidea erabili ahal izateko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 78. eta 79. artikuluek eskubide hori ematen baitiote legezko interesdun gisa. Aipatu legearen 75 eta 76. artikuluetan ezarritakoa betez, aseguru konpainia esleipendunak, legezko interesduna den aldetik, eskubidea izango du zenbait egoeratan esku hartu dadin edo legezko izapideak edo araudi bidez ezarritakoak egin daitezen proposatzeko eta, prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen, alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen elementuak aurkezteko eskubidea ere izango du, aipatu legearen 78. artikuluak interesdunei ematen dizkien gainerako eskubideez gain.

Era berean, aseguru konpainia esleipendunak beretzat gordeko du 39/2015 Legeko 77. artikuluak ematen dion eskubidea, egoki deritzon frogak proposatu ahal izateko prozeduraren instrukzio-egileak frogaldi bat hastea erabakitzen badu.

Prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, asegurudunak espedientearen berri emango dio aseguratzaileari, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin eta dokumentuak eta justifikazioak aurkeztu ahal izateko, aipatu legeko 82. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.3. ASEGURU ARTEKARITZAK BERE GAIN HARTU BEHARREKO ZEREGINAK

BIKABI ARTEKARITZA SLk zeregin hauek hartuko ditu bere gain:

- Asegurudunei aholku ematea aseguratzailearen aurrean dituzten betebehar guztiak betetzeko, gorabeheren eta erreklamazioen aitorpenari dagokionez.
- Ezbeharren jarraipen eta kontrolerako batzordea osatzea, egokitzat jotzen den ezbeharretan. Batzordearen egitura eta funtzioak protokolo honetako 4. atalean ezarritakoaren araberakoak izango dira.
- Ezbeharren jarraipen eta kontrolerako batzordearen ezohiko bileren datak erabakitzea, gai zerrendaren zirriborroa prestatzea, asegurudunak eta aseguratzaileak onartuta, eta gai zerrendan tratatu beharreko gai guztiei buruzko dokumentazioa prestatzea.
- Batzordearen bilera bakoitzaren ostean, artekariak dagokion bilera oharra prestatuko du eta aseguratzaileari eta asegurudunari bidaliko zaie, berehala eta aldi berean.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

2.4. ASEGURU KONPAINIA ESLEIPENDUNAK BERE GAIN HARTU BEHARREKO ZEREGINAK

Aseguru konpainia esleipendunak zeregin hauek hartuko ditu bere gain:

- Aitortutako erreklamazio eta gorabehera guztiak jaso eta aztertuko ditu, polizaren estalduren pean babesik izan dezaketen ikusita. Erreferentzia zenbaki bat jarri eta artekariari jakinaraziko dio.
- Beharrezkoak diren gaiaren aurrekari guztiak bilduko ditu.
- Ondarea erreklamatzeko administrazio prozeduran agertzearen ondoriozko zeregin guztiak, atal honetako hirugarren puntuan adierazitako baldintzetan eta aplikagarria den araudiaren arabera.
- Aseguru konpainia esleipendunak aztertuko du beharrezkoa ote den letradu bat izendatzea, beharrezkoa izango balitz aseguruduna eta aseguru konpainia esleipenduna batera defendatzeko. Letradu hori asegurudunaren zerbitzu juridikoekin harremanetan jarriko da, prozedura koordinatzeko.
- Aldeek ezin dute alde bakarreko erabakirik hartu eta, beraz, interes komunak ahal bezain ongi defendatzeko moduan jardun behar dute.
- Aseguru konpainia esleipendunak ordainduko ditu polizak bermatutako erantzukizunari dagokionez asegurudunaren eta aseguru konpainia esleipendunaren interesak defendatzeko izendatzen dituen abokatuen ordainsariak, eta, salbuespen gisa, asegurudunak izendatutako letraduen ordainsariak ere ordainduko ditu, poliza honetako baldintza partikularretan adierazitako zenbatekoetan eta baldintzetan, erreklamazioaren aurrean defentsa lana letradu hark egitea onartu badu berariaz; horretarako, aseguru konpainia esleipendunaren berariazko baimena beharko da, kasu guztietan.
- Asegurudunak zigor bidean defendatzeko izendatutako letraduak eta aseguru konpainia esleipendunak izendatutako letraduak koordinatuta lan egingo dute.

3. ARDURADUNAK

Eskaintza teknikoan esplizituki adierazi beharko da aseguru konpainian nor arduratuko den ezbeharrak izapidetu, kudeatu eta ebazteaz.

4. EZBEHARREN JARRAIPEN ETA KONTROLERAKO BATZORDEA

a. Batzordearen xedea:

Dagokien zenbatekoaren eta kalte pertsonalen arabera aldeek egokitzat jotzen duten ezbeharretan eta erreklamazioetan jarraipen eta kontrolerako batzorde bat sortuko da salbuespen gisa, jakitera eman diren gorabeheren eta erreklamazioen ondorioz sortutako espedienteen jarraipen eta kontrolerako informazio eta koordinazio sistema bat ezartzeko.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

b. Eraketa:

Batzordeak kide hauek izango ditu:

- Asegurudunaren aldetik: bi kide.
- Aseguratzailearen aldetik: bi kide.
- Artekariaren aldetik: bi kide (ahotsarekin baina botorik gabe).

Batzordeak egokitzat jotzen dituen profesional, teknikari eta aholkulari guztiak gonbida ditzake, aztertu beharreko gaien arabera, kasuak ahal den modurik aproposenean aztertzeko helburuarekin.

c. Eginkizunak:

Jarraipen eta kontrolerako batzordeak eginkizun espezifiko hauek izango ditu:
- Gorabeherak eta erreklamazioak aztertzea.
- Kalte-ordainen zenbatekoak eta erreserbak aztertzea.
- Aitortutako gorabeheren eta erreklamazioen jarraipena egitea eta haiek ikertzea.

d. Bilera oharrak:

Jarraipen eta kontrolerako batzordearen bileren helburuak kontrolatzeko, bilera oharrak egingo dira saio bakoitzean eta landutako gaiak jasoko dira haietan.
Bilera oharrak BIKABI ARTEKARITZA SLk prestatuko ditu.

e. Bileren maiztasuna

Oro har, batzordearen bilerak ezohikoak izango dira eta egokitzat jotzen den maiztasunarekin egingo dira; edozein aldek egin dezake ezohiko bilera bat egiteko eskaria.

f. Isilpekotasuna

Jarraipen eta kontrolerako batzordearen kide guztiek isilpean gorde beharko dituzte bertan aztertutako gai guztiak, haien aseguramendu tratamenduari kalterik egin gabe.

5. EZBEHARRAK KUDEATZEKO ETA IZAPIDETZEKO PROPOSAMENA

Erantzukizun zibileko eta ondare erantzukizuneko adarra.

- Komunikazio prozedurarako, lehen deskribatu diren bideak erabiliko dira: gutuna, faxa, posta elektronikoa, telefonoa, etab.

- Udalaren aurrean aurkeztutako eta zuzenean aseguru konpainiari aurkeztuko gorabeherak edo erreklamazioak eta justizia auzitegien aurrean egindako esku-hartzeak protokolo honen pean jarriko dira.

-Eremu geografiko honetan aseguratzailearekin kolaboratzen duten peritu kabineteetako batzuk aipatzea edo aseguratzaileak peritu kabinete propiorik bat ote duen adieraztea.

- Espedienteko dokumentazio guztiarekin, eta aldez aurretik Udalarekin hitzartuta, txosten idatzi eta arrazoitua egingo da 5 eguneko gehieneko epean. Erreklamazioa onartzen bada, kalte-ordainaren balorazioa adieraziko da. Erreklamazioa atzera botatzen

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

bada, aldiz, entzunaldiko tramitean adierazi beharko da zertan oinarritzen den konpainia, erantzukizunik ez hartzeko bere gain.

- Konpainiak jotzen badu erreklamazioa ez dagoela estalita, Udalari jakinaraziko dio 15 eguneko gehieneko epean, jaso denetik zenbatzen hasita.

- Udalak erreklamazioa onartzen badu, ezbeharraren likidazioa 15 eguneko gehieneko epean egingo da, konpainiak dokumentazio guztia eskura duen egunetik zenbatzen hasita, kaltea jasan duenaren aldeko banku transferentziaren bidez.
- Tramitazioa hitzarmen bidez amaitzea komeni bada, konpainiak negoziazioa kudeatuko du kaltea jasan duenarekin, Udalarekin bat etorrita.
- Prozesu judiziala abiatzen bada, konpainiak letradu bat izendatuko du, beti bera, harremanak eta komunikazioa errazteko helburuarekin.

- Ezbeharrak legez ezarritako epeetan itxiko dira.

- Lantaldeari dagokionez, konpainiak eskaintzan adierazitako unitateak izango ditu eta ezbeharren jarraipen eta kontrolerako batzorde bat sortuko du era berean; batzorde hori Udalak, aseguru konpainiak eta artekariak osatuko dute.

- Izapideak egiteko epeak.

- Komunikazioei berehala erantzungo zaie. Erreferentzia zenbaki bat jarriko zaie 48 orduko gehieneko epean.
- Ez bada beharrezkoa perituak esku hartzea, kalte-ordainen balorazioa berehala egingo da, behin dokumentazio guztia jasotakoan.
- Perituak esku hartu behar badu, 48 orduko gehieneko epean egingo da, eskaria egin denetik zenbatzen hasita.
- Perituaren txostena Udalari helaraziko zaioa 5 eguneko gehieneko epean, behin espedientea itxi eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztutakoan.
- Zalantzak ahal bezain laster argituko dira.
- Kalte-ordainak 15 eguneko gehieneko epean kitatuko dira, behin konpainiak dokumentazio guztia eskuratu duenetik zenbatzen hasita.

Udal ondasunetan egindako kalteen adarra

- Hainbat bide erabiliko dira ezbeharraren berri emateko: posta elektronikoa, gutuna, telefonoa, faxa.

- Behin komunikazioa jasotakoan, aseguratzaileak erreferentzia zenbakia emango du 48 orduko gehieneko epean.

- Behin ezbeharraren berri jasotakoan, estaldura aztertzeari ekingo zaio.

- Konpainiak ezbeharraren inguruko erabakia proposatuko du, aldez aurretik Udalarekin hitzartuta, eta adieraziko du kalte-ordainak 15 egun balioduneko gehieneko epean ordainduko direla, aseguratzaileak dokumentazio eta informazio guztia eskuratu duen egunetik zenbatzen hasita, banku transferentziaren bidez.

- Izapideak egiteko epeei dagokienez:

- Komunikazioei berehala erantzungo zaie.

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Ez bada beharrezkoa perituak esku hartzea, kalteen balorazioa berehala egingo da, behin dokumentazio guztia jasotakoan.
- Perituak esku hartu behar badu, 48 ordu balioduneko gehieneko epean egingo da, eskaria egin denetik zenbatzen hasita.
- Perituaren txostena Udalari 5 egun balioduneko gehieneko epean helarazteko moduan egongo da, Udalak hala eskatuko balu ere, behin espedientea itxi eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztutakoan.
- Zalantzak ahal bezain laster argituko dira.
- Kalte-ordainak 15 eguneko gehieneko epean kitatuko dira, behin aseguratzaileak dokumentazio guztia eskuratu duenetik zenbatzen hasita.

6. EZBEHARREN PERITAZIOA

Polizan ezartzen den frankizia gorabehera, asegurudunak, egokitzat jotzen duenean, eta ezbeharraren zenbatekoa frankizia baino txikiagoa izan arren, gaiari buruzko informazio espezializatua eskatu ahalko dio aseguratzaileari, eta azken honek, 15 egun balioduneko gehieneko epean helarazi beharko dio.

Era berean, Udalak, egokitzat jotzen duenean, kalte materialen peritazioa egiteko eskatu ahalko dio aseguratzaileari.

7. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratu hau bi hizkuntzen ofizialtasunaren erregimenaren pean dagoenez, euskara eta gaztelania zerbitzu hizkuntzak izango dira.

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira beti.
- Administrazioarekin edo hirugarrenekin dituen harremanetan, enpresa kontratatuak bermatu beharko du, bere hizkuntza gaitasunei dagokienez, administrazio kontratatzaileari egiaz eskatzen zaizkionen antzeko baldintzak betetzen dituela.
- Kontratuaren helburu diren aseguru polizak eta bestelako lanak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.
- Enpresa esleipendunak, kontratuaren helburu diren zeregin guztietan, administrazio kontratatzailean egiaz aplikatzen diren hizkuntza arauak beteko ditu; horregatik, enpresak administrazioarekin dituen hitzezko nahiz idatzizko harreman guztiak administrazioak lanerako erabiltzen duen hizkuntzan egingo dira.
- Hizkuntza eskakizunen betetze mailaren jarraipena: Kontratua sustatu duen administrazio unitateak kontratuan ezarritako hizkuntza eskakizunen betetze mailaren jarraipena egin beharko du, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera, eta antzeko epeetan. Jarraipen horren berri eman beharko dio euskara zerbitzuari, eta azken horrek onarpena emango du edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluen arabera:

ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae

- Kontratuaren arduradunak aztertu beharko du kontratua betetzen dela, jarraipena egingo du bertako hizkuntza eskakizunak betetzen direla bermatzeko, eta, xede horrekin, beharrezkoak diren erabakiak hartu eta aginduak emango ditu.
- Kontratuaren arduradunak modu jarraituan egingo du aipatu azterketa, ez soilik amaieran, eta horretarako, jarraipen euskarri espezifikoak erabiliko ditu, detektatzen diren akatsak zuzendu ahal izateko.

Nork Sinatua / Firmado por: ENERITZ ARRUTI OSANBELA - 44567303L
2022/10/06 11:22:01

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUd5fe3568-1f52-4fd1-a6bf-75576688ccae**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***